

A photograph of a cave interior. The cave walls are covered in numerous stalactites hanging from the ceiling. A stream flows through the center of the cave, reflecting the warm, golden light. In the foreground, a camera on a tripod is positioned, capturing the scene. The camera's viewfinder shows the cave's interior. The overall atmosphere is mysterious and ancient.

Izaro izeneko printzesa
eta
krimen zoroangarriaren tesia
UGAITZ AGIRRE



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

UGAITZ AGIRRE

Izaro izeneko printzesa
eta krimen
zoroangarriaren tesia

I La séduction edo lehen inpresioak eragiten duen kitzikadura

1

METEORITOA erori balitz bezalako. Lehergailu atomikoa bestela. Inpaktuaren ondorioak ez ziren izan berehalakoak, baina; inoiz ez dira. Horrelakoa izan zen Izaroren etorrera Artziniegara. Okerrena da inork ez zuela iragartzen halako kataklismorik, soilik goi-mailako komandantzietan izan zezaketen horrelako zerbaiten susmoa. Bai, hori da, susmoa bakarrik.

Eta inork kontrakorik esan aurretik, aipa Izaro ez dela bere benetako izena. Beste nortasun bat sortzeko eskatu dit. Ez da poliziarri beldur diolako edo gaizkileen atzetik ibiltzen diren justiziagile autonomoei iskin egitearren. Ospea dosi txikietan gustatzen zaio, petikomite eta perfume-ontzietan.

Jada egun batzuk zeramatzan Josurekin lanean. Hauek laguntza behar zutela eta, Irati eskaini zen egun pasa Artziniegara joateko Bilbo gris eta monotono hartatik. Erretes Tudelan bi zakur eta agure bat ikusi zituen, baina hiri handiaren anabasa baino exotikoagoa iruditu zitzaion hango panorama. Egund motel horietakoa zen, zeruan hodeiak negarrez hasten direna kantu malenkoniatsu bat jartzen badiezu. Egund oskarbiak nostalgiaz oroitzen zituzten euren gristasunean.

Mutilak bere film mistikoa egiteko herri haren pean topatu zuten koban eszena bat irudikatzen zuen. Antza Paleolito edo Neolito garaiko aztarnak aurkitu zituzten arkeologoek, eta hori txundigarria zen Josuren ideia... (Fantastikoa? Fantasmagorikoa?) Ideia fantalitoa egiteko. Irudikatu nahi zuen Izaro bere arbasoen pistaren atzetik eta, behin kobazulotik aterata BUN beste begirada bat, beste ikuspuntu bat, beste izate bat: arbasoen jakinduria.

Ingurua ez zen oso irisgarria, ordea. Aldapa pikoan aurkitzen zen kobazuloaren sarrera, eta edozer gertatuta ere, hobe ahal bezainbeste esku lagungarri handik egotea. Josu pare bat aldiz erori zen filmatu artean, eta horren kontura galanki barre egin ere Iratik. Baldar samarra da mutila, egia esaten hasita. Dena ere ez dela bere errua? Arrazoi. Aurreiritzi dezente ditu berari buruz, batez ere Iratiren mutil-lagunaren kuadrillakoa delako eta horrek gauza asko baldintzatzen ditu pertsona bat ikustean. Horrexegatik Izarorekin ez zuen horrelako ezer sentitu berarentzat horma zuri bat baitzen. Iritziak, gertaerak, pentsamenduak, emozioak, dena idazteko zegoen oraindik.

32 urteko neska ederra zen benetan, liraina, edonor aho zabalik uzteko modukoa. Eta aldi berean, sekulako interesaren eta energiaren erakusle inguratzen zuen guztia ulertzeko. Gustatzen zitzaion

honekin hitz egitea, hari zera galdetzea, hau zergatik gertatzen zen ahots goran pentsatzea... Jakin-minak zeroan Izaro. Hori izan zuen arrazoia Euskal Herrira, eta zehazki Artziniegara, joateko.

Etxepare Institutuak deialdi bat egin zien diasporako euskaldunei. Euren jatorri-herrietara bidaiara antolatzen zuten horrela euskaldun garaikideen berri lehen pertsonan eman zezaten berriro ere bakoitzaren herrialdeetara itzultzen zirenean. Tira, batek baino gehiagok turismo-marketing estrategia zela salatu zuten (ezbairik gabe, kaxkarra), horrek ez baitzuen bermatzen etorkizunean Mexiko, Australia, Argentina edo Nevadatik turista kopuru esanguratsuaren etorrera. Batzuek epe luzerako inbertsioa zela eta besteek epe motzeko diru xahutze merkea. Kontua da Izarok bere Oaxacan ekimenari buruz entzundakoan, bere abizenaren jatorri euskaldunak ate berriak zabalduko zizkiola sinetsita zegoela. Baldintza eta eskakizun guztien betetzailerik, izena eman zuen. Hautatuen zerrendan ikusi orduko, motxila betetzeari ekin zion. Ozeanoa zeharkatzeak berarekin duen ilusio txutea.

ATZEKO ATETIK irteten zenerako, han zegoen Josu dena prest zuela bideo-kamerarekin etorrera filmatzeko Hollywood edota Broadwayko izarra bailitzan. Atzerapen handiarekin bazetorren ere, ez zion askorik ardua mutilari. Eguzkiaren mugimendua eta kokapena, zeru urdina nabigatzen zuten hodei bakanen ausazko jitea, aurreko autobusek utzitako pneumatiko arrastoak atzeko atearen kokaleku zehatza jakiteko... eta gero kamera non ipiniko: enkoadraketa aproposa, perspektiba esanguratsua eta argiztapen zehatza. Adimen maniako baten dedukzioak besterik ez ziren. Alboko terrazan zeudenak harri eta zur utzi zituen bere performanceak.

12:46 zenean ailegatu zen autobusa. Azken uneko erroreak konponduta, eskutako bideo-kameraren grabatzeko botoia sakatu zuen. Bere buruan nostalgiak gogoratzen diren modernitate hartako udak eta bideo amateurrak zeuden. Horregatik, ixa motibogatik lentearen aurrean gurutzatu zen argi-izpi itsugarriak sentazio orgasmikoak eragin zizkion. Bidaiariak jaisten hasi ziren, banan-banan, kasualitatez intriga erantsiz eszenari, harik eta Printzesa denetan azkena agertu zen arte: ile adats luzeen belztasuna, azalaren beltzarana, ezpainen gorria, gorputzaren liraina soineko urdin argiz dotoretua. Bazen-behin-urruneko-lurralde-batean esamoldea erabiliz hasten ziren ipuinetatik ihes egindako printzesa izan zitekeen. Bitartean, ergelduta ikusten zuenarekin eta ia lerdea bi ezpain ertzetatik eroriz, besoa okertzen ari zitzaion mutilari ohartu ere egin gabe. Sandalia loredunak filmatu zituen behintzat.

Maletategitik motxila handia atera eta mutil gaztearengana hurbildu zen.

—Josu zara, ezta? Ni, Izaro.

Hala zela baldarki esan zion, baina are baldarragoak izan ziren agurreko bi musuak. Auskalo zer pentsatuko zuen une hartan Izarok. Irudipena da halakoetara ohitua zegoela. Ez zen lehen aldia eta gutxiago azkena. Motxila bizkarrean hartzerakoan, aurretik zekarren neke aurpegia nekatuagoa bihurtu zela ohartuta, tragoren bat hartzea proposatu zion Josuk. Baiezkoa, pozarren; gainera, harrera egiteaz arduratzen zen udal ordezkaria berandu zebilela gaineratu zuen. Poliziarekin bilerak edo horrelako zerbait kontatu zion Bilbora iritsi berritan.

—Esan dit ordu biak aldera edo deituko nauela eta ostatuaren kontuak eta beste egingo ditugula.

Frontoi alboko kafetegian jarri ziren biak, justu argia eta itzala bereizten ziren mahaian. Izaro argiaren aldean jesarri zen beltzarana oraindik beltzaranago bihurtu nahian. Eguzkitako betaurrekoak ipini eta iraileko egun eguzkitsu hartako argi printzen berotasun goxoa dastatu zuen. Josu, ordea, itzalekoa zen. Gorroto zuen izerdi tantak bizkarretik behera sentitzea ezer egin gabe.

—Zer nahi duzu, Izaro, kafe bat edo?

—Garagardoa. Handia. Hotza.

Ezustean harrapatu zuen erantzun argigarriak. Ezusteko handiagoa izan zen zurrut bakarrean ia edalontzi erdia hustu izana. Eta bitartean Josu ebakiari birak eta birak emanez, mareatzeraino beroa baitzegoen.

—Toki polita dirudi Artziniegak, ez duzu uste, Iزارo?

Autobus geltokitik terraza hartara egongo ziren ehun bat metroko paseotxoan, indianoen palazioek deitu zioten arreta, halako misterio puntu bat, abandonatuta nabari zenaren seinale. Gerora jakin ahal izan zuen atzerriko inbertsio funts batek erosi zuela New Yorkeko idazle batentzat, zeina noizean behin agertzen baitzen arabar lur haietan. “Bai, hala dirudi”, kortesiazkoarekin erantzun zion laster botaka egingo zuen kafea nahasten jarraitzen zebilen mutilari. Temperatura kontrasteak blaituta zuen edalontzia hartu eta bigarren tragoa ematera zihoanean ohartu zen Izaroren begien urdinaz. Zeru urdin mugagabea maitemintzeko? Hipnotizatuta utzi zuten, tentelduta hitzik esan gabe eta berari begira. Emozio leherketa sentitu zuen barne-barnean, adierazi ezinak diren horietakoa zerbait sublimea delakoan.

—Hor zaude? Niri begira jarri zara... Zerbait dut aurpegian?

—Because the sky is blue my love are you.

—Zer?

—Ezer ez. Filmaketa kontuak —horrekin disimulatuko zuelakoan zeru urdinak negarra eragiten ziola Liverpooleko laukoteari.

Edalontziari azken aldiz heldu zion geratzen zitzaion garagardo guztia zintzurretik behera isurtzeko. Bitartean, kafe tanta bakar batek ere ez zituen Josuren ezpainak ukitu. Kafearen eta esnearen arteko nahasketaren koloreari adi-adi begira zegoen, Izarori begiratzeak sortzen zion errespetutik lotsagorritzera tupust bakarra baitzen. Izarok edalontzia mahaiaren gainean utzitakoan, Josuren estrategia guztiak hankaz gora geratu ziren, begietara so geratu baitzitzaion. Aurrekoaren mendekua zirudien edo akaso begirada psikoanalizatuz Josuren izaera ezagut zezakeen. Urduritasun dardarak gorputz guztia gurutzatu zion mutilari, zeharo deserosoa zitzaion egoera, eta, zuhurtziaren izenean, ez zen keinurik ñimiñoena egitera ausartzen. Begiak ekiditen, ezpain haragitsuetan bukatu zuen begiradak.

—Esan, Josu, zer daukazu buru horretan bueltaka?

JOSUK ZINEMA IKASI ZUEN Madrilen eta Londresen. Dekadentzia, modernitatea eta nostalgia epikoa gurutzatzen diren eremu desolatu horretan mugitu da hara eta hona.

Irudien saturazioa pornografikoa bilakatu den honetan (fetitxeen barra libre), atzera itzultze horrek deitzen zion. Nonbait eta noizbait galdutako esentzia puruaren berreskuratzea izango zen martxa inspiratu nahi zuela esango nuke, berriro ere inuzente alaiak izan gintezen kosmosean. Horregatik ustekabeko egun hartan, ohi bezala, etxepeko tabernan kafesnea hartuz Berria egunkariak zekarren bi orrialdetako erreportajea Etxepare Institutuaren ekimenari buruz irakurritakoan, aukera paregabea ikusi zuen buruan bueltaka zituen ideia horiek guztiak plasmatzeko. Honela zioen kazetariak: “Diasporan dauden euskaldunek euren jatorri-herria ezagutzeko aukera izango dute, eta bertako sortzaile bat bidaia hori erakustez arduratuko da artefaktu baten bidez”.

Gutxitan horrelako aukerak. Imajinatu, irakurtzen ari zen bezala ia kafesnea erori zitzaiola emozioaren emozioz. Proiektua aurkeztu eta hautatuetakoa bat izateko zortea izan zuen. Berarekin batera idazleak, dramaturgoak, kazetariak, zinemagileak... musikari bat ere aukeratu zuten album kontzeptual baten proiektua esku artean zuena.

Josuren proiektuak “Diasporatik kobetara, euskal mistikaren xerka” titulu ponposoa zeraman. Edonork esan zezakeen Jorge Oteizaren liburuetako batetik lapurtutako esaldia zela. Josuk buruan iltzatuta zuen euskal esentzia aurkitzeko bidaiariak bere arbasoek zapalduetako lur bera zapaldu behar zuela, hondartzako harearen gainean utzitako oin marken gainetik ibiliko balitz bezala. Hau da, ctrl C ctrl V egitea. Apain zezakeen esanez bidaia bat zela atzeraka, hasierara, sorrerara, amaren umetokira, eta, horregatik, estetikoki ere esanguratsua izatea beharrekoa zela. Ezinezkoa zen istorio hori hala moduzkoa izatea, ez, zerbait adierazgarria izateko inozentziaren betaurrekoak jarri behar ziren superproduzioek eta CGI masiboaren erabilerak kaltetutako begirada berreskuratzen. Eskuko bideo-kamera aspaldian zabaldu ez zuen kaxan topatutakoan, helburua nola exekutatu garbi geratu zitzaion: udako oporretako bideo amateurra.

—Ados, eta zure buruan gauza izugarria izango da zalantza barik, baina Izarori zer iruditzen zaio zure... Nola esan suminduko ez zaituen era batean?

—Hiru txupito Jagger, bi belar porro eta tripi baten osteko zo-ra-ke-ri-a, Irati, ez dago beste forma posiblerik hori esateko.

Irati eta Xabierren Bilboko pisuan zuen ostatua Josuk.

Bi mutilak txikitako lagunak ziren, kuadrillakoak, betikoak. Gero etorri ziren ikasketak, hegaldiak, enpleguak, mudantzak. Xabierrek Bilbon amaitu zuen lana tarteko. Ordurako, Sohok liluratuta zeukan Josu —unibertsitate garaiko parranda batean ezagutu izana ahaztuta zuten Iratik eta Xabierrek;

“Hemen itxarongo zaitut”, zirikatu zuen neskak txosnan lanean zebilen mutila; goizaldeko taberna zuloetako lioak; orduz geroztik zenbat kalimotxo, sarri-sarri, felazio?; “Elkarrekin bizitzen jar gaitezen”; abenturaren dekadentzia errutinara eta ostiraletan afaltzera japoniarrera; “Zertarako aldatu hau ondo badago?”; erantzunak onartzen ez dituzten esaldiak— eta zinemaren mundua irauliko zuenaren ideiarekin lur hartu zuen Loiun. Zinemaren mundua izango zen pisu hartako monotonia iraultzeko petralegia baitzen.

—Lin ghiigi dit. Plinifikiziii irripisiti, giir bisitititiki likiliziziik iztirti, igirildi irigirpinik ipintiti. —Iratiren buruan horrela entzuten zen—. Eta ahaztu gabe zortzietan Izarori deitu behar diot.

—Horregatik ba, ni alboan egotea komeni zaizu.

—Utziozu, Irati —Josuk atera gerturatzen zuen bitartean—. Wifiaren pasahitza hozkailuan duzu pornoa ikusten jarri behar baduzu. Edo Tinderren zortea bilatzen jarraituko duzu?

Maitemintzea ez zen Josuren planetan sartzen. Lorez lore ibiltzeak satisfazio nahikoa ematen zion, eta horrekin sobera zuen. Gainera, bere lagunaren bikote harremana ikusi eta halako zerbait izateko gogoak erabat uxatzen zitzaizkion. Zirrara eta liluramendua beste nonbait bilatzen zituen mutilak, kitzikadura eragin ziezaiokeen edonolako onanismo ariketan. Gero Izarorekin gertatua gogoratzen zuen eta zalantzak sartzen zitzaizkion. Pentsamendu horiek uxatuko zizkion zarata beharrean, telebista piztu eta arratsaldeetako tertulia programa baten zurrumurruak aditzen hasi zen bere eginkizunetan zelarik. Antza, eraso terrorista bat gertatu zen, non eta Gordexolan. Izena aditu bezala, begiak pantailatik altxa zituen. Mikel udal ordezkariarekin egondakoan ez zitzaion iruditu tertuliakideek zioten bezain larria zenik. Moteltzaile batzuk puskatu zituztela, besterik ez. Noiz ez da halako ekintza bandalikorik gertatzen zer egin ez dakizunean?

—Hemezortzi moteltzaile dinamitatu zituzten, Iزارo, hemezortzi! —txundituta kontatzen zion bezperan gertatutakoa—. Ez naiz harritzen horren larrituta egon izana Mikel bera.

—Ba Mikel aipatzen duzula, handik dator.

Pirineum tabernan egina zuten hitzordua hirurek. Egunak lagunduko ziela uste bazuten ere, usteak erdi ustel izan ohi dira, eta egun grisak aurreko eguneko eguzkiari eta oskarbiari erreleboa eman zien. Horrek ez zuen Josu askorik konbentzitzen, berez nahiago baitzuen eguzki argitan filmatu herriko kaleetan zehar egingo zituzten eszenak. Argiak berebiziko garrantzia zuen liluramenduan, eta herriak hori eragin behar zion Izarori ere. Mikel, erdi arnasestuka iritsi zena beste biengana, plastikozko aulkian eseri eta zigarro bat egiten hasi zen atean zegoen zerbitzariari keinu egin eta gero.

—Nahi baduzue buelta bat eman dezakegu herrian eta hurrengo batean filmatu daiteke, edo ikusten duzuen bezala. Ni hemen zuei laguntzeko nago.

—Ondo iruditzen zait —baieztatu zion Josuk—. Euri langarraz eta dena grisa egotea ez da erakargarria. Oso iluna ikusiko da.

Bere planak zein ziren lasai azaltzera zihoanean, ordea, Izarok moztu zion:

—Baina zer ari zara esaten, Josu? Nola ez dugula filmatuko? Gaurko eguraldia zoragarria da-eta zuk duzun ideia plasmatzeko? —Josu pixka bat jokoz kanpo geratu zen—. Euriak bustita dituen harri zaharrak, negarra balitz bezala, eta justu orduan diasporatik etorri den neska gaztea bere jatorri urrunaren detaileetan duelarik soa. Gauza malenkoniatsu eta nostalgikoagoa den ezer ez zait bururatzen oraintxe bertan. Eta nostalgia horretatik zuk bilatu nahi duzun euskal mistikara.

Zer emozio eta harridura Izaroren azalpenek eragindakoa! Norbaitek ulertzen zuen bere ideia, bere artea. Ez zen zorakeria singular bat. Kamera atera eta “rec” botoiari klik terrazako eszena bera ere interesgarria izan zitekeelakoan.

—Nik ere atera behar dut? Dotoreago etorriko nintzen jakin izan banu.

—Naturaltasuna nahi dugu hemen, Mikel, ez zaitetz kezkatu horregatik.

Kafesnea edalontzian atera zion orduan tabernariak eta pasa berri ziren festen inguruko aipamen ulergaitz bat egin eta gero, berriro itzuli zen kameralari eta aktorearengana. Herriaren historia kontatzen hasi zitzairen kuadrillakoei txikitari gertatutako anekdota bat kontatzen den gogo berarekin.

—Konturatuko zarete hemen gauza asko dela “diotenez...”, baina gero egia den edo ez, hori beste gauza bat da —zigarroari zupada eman zion—. Orain gogoratzen naizela, hemen pare bat pelikula filmatu dira. Ez da oso zaila izango bien kalitate narratiboa gainditzea, nik uste.

—Beraz ospetsua da Artziniega! Abizen ospetsua dut! —ironiaren muga gainditzekotan Izaro.

Abizena aipatu zuenez, berriz ere Erdi Aroko kontakizunetara itzuli zen. Antza, umezurztegi bat zegoen Artziniegan orduko mojek zeramatena. Bertako haurrei Arciniega edo Encina abizenak jartzen zizkieten herriaren seme-alabak bezala identifikatuz behin umezurztegia utzi eta gero. Gutxienean nondik zetozen jakiteko balio zioten haur gizagaixoei. Izarori grazia egin zion mojen kontuak, berriro ere hasierara itzuli zenaren susmoa baitzeukan.

—Arrazoi duzu! —barre txiki artean Mikelek—. Zer moduz egin duzu lo?

MOJEN KOMENTUA Artziniegako goialdean dago. Moja izan gabe ere sar daiteke bat, baldin eta limosna uzten badu bertako zerbitzuengatik. Izarok ez zuen ezer ordaindu beharrik izan, ordea. Horretarako zegoen Etxepareko langilea, Garazi. Izaroren egonaldiak iraungo zuen artean, bisitaren bat egitekoa omen zen gauzak nola zihoazen jakiteko eta beste, nahiz eta telefonozko harremana une orokoa izan. Dena ondo joatea nahi zuen, batez ere ekimenak sortu zituen kanpo kritikak zirela eta. Horregatik ezinbestekoa zen bisitariekin harreman ona mantentzea eta ia zerbitzari leial eta prestuaren rola betetzea. Batzuetan jasangaitza egiten zela aitortu behar, baina bakoitzak bereari begiratu ohi dio lehenengo eta Izarori ez zitzaion gehiegi ere axola. Behar zuen edozertarako prest zegoen, eta seguru, parranda baten erdian, goizeko ordu txikietan deitu izan balio auskalo nondik Artziniagara itzultzeko eskatuz, autoa hartu eta bertan aurkeztuko zela taxi-gidari lanak eginez.

—Erregina bat bezala tratatu naute. Bazkaltzeko eta afaltzeko hiru plater gehi postrea eta kafea. Gosaltzeko ere nahi adina. Ohea zeharo atsegina eta lehen solairu guztia niretzat utzi dute.

Apaindura eklesiastikoak ez zitzaizkion arraro egiten neskari. Mexikoko familia kristaua zen, eta ohe alboan gurutzea edo Jesukristoren irudia edukitzea haurtzarora salto egitea bezalakoa zen.

Hori entzundakoan, Josuri bonbilla piztu zitzaion. Galdetu zuen ea posible izango ote zen komentu barruan grabatzea. Mikelek zalantza handiak zituen horren inguruan, galdetu beharreko zerbait izango zela, baina ez izateko esperantza askorik.

—Eta bestela ezkutuan egin dezakegu.

Biek ala biek zalantza egin zuten, ez baitzekiten Izaroren hitzak benetakoak ziren ala txantxetan ari ote zen. Zigarroa hautsontziaren aurka lehertzearekin azken tragoa eman kafesnari eta altxatzeko keinua egin zuen Mikelek. Izarok jarraitu zion eta Josuk kamerarekin grabatu zituen bien mugimenduak.

Kalez kale, beti begiaren eta objektuaren arteko segurtasun distantzia mantenduz, Artziniegako txoko guztiak kamerak harrapatu arte. Halere, Josuri ikusten zuenak baino Izarorengan zuen eraginak axola zion. Horregatik, eliza atzeko begiratokira iritsi zirenean, eta bezperan ikusi zituen paisaia argitsuez gozatzeko aukerarik ezak eragindako desilusioa aurpegi keinu bakoitzean nabaritu zenean, pena sentitu zuen. Kamerari begira jarri, eta, bart iluntzean, afaldu eta gero emandako osteratxoan ikusitako guztia kontatzen zuen, lainoak paisaiaren lilura ezkutatu zuelakoan edo. Josu orgasmo bat izatekotan zegoen, zeharo erreala baitzen filmatzen ari zen guztia. Barne hotsa bera.

—Eta normalean hemen ematen dituzte lehen musuak herriko gaztetxoek —esanez bukatu zuen Mikelek.

Ez zuen horrelakorik espero Izarok, baina hasierako harridura zerbait komiko bihurtu zen puzzlearen piezak egoki kokatu zituenean. Diskrezioa. Hori eskatu ohi dute lehen musuek. Horrek ematen die magia hain baldarrak diren musuei. Pasa berri ziren festei erreferentzia eginez, maitasun istorio bat edo beste hasi zirenaren txutxu-mutxuak entzun zituen Mikelek.

—Niri printzesen istorioak gustatzen zaizkit, bazen-behin-urrutiko-lurralde-batean formularekin hasten direnak bereziki.

—Ba printze urdinik egon daiteke Artziniegan, Izaro.

—Auskalo. Nork uka dezake ez naizela Artziniegatik maitasun istorio baten oroigarriarekin itzultzen?

Isiltasuna egin zen. Soilik behien zintzarriak eta motozerraren zarata entzuten ziren. Bat-batean, barreari ezin eutsi zebiltzan.

Bezperako kafetegira iritsi ziren, herria norabide guztietan esploratu zuten. Atsedean txiki bat bazkaltzera joan aurretik. Garagardo bana hartzen ari zirenean, baina, Ertzaintzaren hiru furgoi gelditu ziren udaletxearen aurrean, zeina Mikelek azaldu berri zien bezala, lehenik dantzalekua eta ondoren Guardia Zibilaren kuartela izan baitzen. Ertzainak armatuta sartu ziren eraikinean miaketa egiteko agindua erakusten ziolarik buruak hitz erdi bakarra ere esan ziezaiokeen edonori. Zirku haren guztiaren zuzendaria zen dudarik gabe.

Mikel bere atsedenetik zutitu eta lasterka joan zen udaletxera. Alferrik. Ez zioten sartzen utzi ere. Barruan, ertzainburuak akta, txosten eta gainerako dokumentu guztiak hankaz gora jartzeko agindua eman zuen. Alkatea bere bulegotik irten zen anabasa haren motiboak eskatuz, baina autoritateak paper judiziala aurpegiaren kontra itsatsi zion itozteko moduan.

—Ikerketaren arabera, udal hau Gordexolan gertatutako atentatuaren konplize zuzena da. Zuen kolaborazio osoa eskatzen dugu dagoeneko kalabojoan dauden lau gaizkileak bezala amaitu nahi ez baduzue.

Alkatea eta lanean zebiltzan udal teknikariak zurezko mahai baten bueltan jarrarazi zituzten. Han zeuden bi poliziek begiz jota, mugimendu susmagarririk ezin egin. Teknikarietako batek, momentuko presioak eta nerbioak eraginda, nikotinaren tximinoa jauzika sentitu zuen gorputzean. Handik ezin

zitekeela mugitu gogorarazi zioten eta bertan erretzen bazuen lege hauste larritzat hartuko zutela ekintza hura.

Adi begira zeuden bi kanpotarrak. Diskrezioz grabatzen zebilen, ez baitzuen nahi goiz hartako irudiek ertzain-etxe bateko sotoan amai zezaten.

—Hau ohikoa al da? —tonu naifean galdetu zion Izarok.

Josuri hain ezagun eta etxeko zitzaizkion Hernaniko irudiak zituen gogoan. Zenbat istilu, guda, gatazka, borrokatan hartu ote zuen parte? Begien aurrean bortxaren erabilera aldebakarrekoa zegoen, ordea, eta bere sumindura “rec” botoia martxan mantenduz gorpuzten zuen. Txio moduan igortzearekin metxa piztu zen, eta handik segituan hedatu euskal geografia osora.

—152 RT eta 289 atsegite!

ARRATSALDEKO MANIFESTAZIOAN herritarren gehiengoak bildu zen, baita Aiaraldeko jendea ere. Inoiz ez zen hainbesteko jendetza bildu Artziniegan, ezta Burgoserako bidean Bilbotik doazen karabana segizioko lehenak matxuraren bat izan eta denek bidean gelditu behar izaten dutenean ere.

Manifestazio horretan ezagutu zuen Iratik Izaro. Laudiokoa izanik, ezin zuen han egon gabe gelditu gertatua ikusi eta gero. Mikel bera laguna zuen, institututik elkar ezagutzen ziren. Eta ordutik harreman onean, haserrealdi eta min ematen duten egiak hamaika, baina lagun onak beti. Manifestazioan ikusitakoan, bere gainera bota zen maitasunez besarkatuz.

—Zer moduz? Zerbait egin dizute zuri ere?

—Ez. Oraingoz udalarekin zerikusia dugun guztiok libre gara, baina zaintzapean izango gaituztela, eta zerbait arraroa ikusten badute... Badakizu.

—Ze jende nazkagarria. Baina denek dakite hemengo errudun bakarrak moteltzaile nazkagarri horiek direla.

Manifestazioaren ostean istiluak izan ziren. Garbi zegoen. Giroa oso bero nabari zen hasiera-hasieratik eta poliziaren presentziak are itogarriagoa egiten zuen han egotea. Probokazioan ez erortzeko aholkuak bata bestearen atzetik egiten zituzten zentzudunek, baina ezer gutxirako balio izan zuten azkenean. Taberna batean giltzapetu ziren poliziaren karga hasitakoan Izaro, Irati eta Josu, Mikelen aginduz. Bazirudien udal polizial bilakatu zutela Artziniega eta ertzainburua egin alkate. Kexatzea legearen aurkako eraso ote zen?

Giroa baretu zenean garagardo bat hartzeko parada izan zuten laurak. Festa askorako ez zegoen, baina, herria. Bazirudien aurreko asteetakoak kolpez desagertu zirela leherketa batean bezala. Paradoxikoa.

—Sentitzen dut —pizten zuen zigarroa Mikelek gogoz kontra edo—. Ez nuen horrelako estutasunean aurkituko ginenik espero. Ni nahiko zainduta izango naute, eta ez dut nahi orain zuen atzetik ere ibiltzen hastea.

—Zer egin behar da? Toki interesgarriak erakutsi eta bertara lagundu? Hori nik egin dezaket.

Ilusio berezia nabari zitzairen Iratiren begiei. Aukera paregabea ikusten zuen gida lanak egitea eguneroko errutinatik ateratzeko. Gainera Izaro gehiago ezagutzeko parada zeukan horrela, kameraren irudietatik kanpo, eta egiaztatu hura fikzioa ala errealitatea ote zen.

—Niregatik arazorik ez —izan zen Izaroren erantzuna.

Josuri ere berdin zitzaion eta Mikel pozarren geratu zen arazoari konponbidea emanda.

Zorion argi izpi bat izan zen hura. Topa proposamena eta gomendioa: Erreteseko koba erakusteko.

—Han kobazulo bat dago?

—Bai, Irati, ez zara gogoratzen behin festetara igo ginela eta batzuk mozkortuta kobazuloaren bila hasi zirela? Hango okerrena da kotxean joan behar duzula eta mozkortuta bazaude... Harrigarria da oraingoz istripu larririk gertatu ez izana.

—Eta zer dago koba horretan? —jakin-minez Josuk, desiratzen ea buruan bueltaka zuen erantzuna emango ote zion Mikelek.

—Ba Paleolito edo Neolito edo litoren bateko aztarnak topatu zituzten han. Lehenengo artziniegarrak han zeudela alegia.

Iktus bat eman ziola zirudien. Hura zen zirrara, hura emozioa, hura adrenalina purrusta. Biharamun goizean hara joateko espedizioa antolatzen hasi zen. Bilbotik noiz irten beharko zuten hara iristeko, gero Izaro jaso eta herri hartara igo, ingurua ikusi eta filmaketa labur batzuk egin. Bai, bai. Bere buruan dena zen txundigarria eta erraza. Baina kontuan hartu ez zuena bere oinetakoen aukeraketa izan zen. Zenbatetan joan ote zen hankaz gora aldapa hartan?

Egun petrala eta bustia zen. Arratsalderako giro argia iragartzen bazuten ere, goizak ez zuen argi izpi ziztrin bat ere eskaini. Ezta guaiaren plantak egiteko ere. Grabazioak ilunegiak zirela kexu zen Josu, eta Izaro kobatik irteten zenean ez zitzaiola ikusten guztiz kanpoan zegoen arte. Izarok bideoa erakusteko eskatu zion. Jada bere buruan halako gidoi baten eskema egina zuen, eta Josuk zer nahi zuen eta zer ez nahiko garbi imajina zezakeen. Irteerak huts egiten zuen. Lehen begiratutik zeukan garbi. Egun ilun eta motelak filmaren lehen erdian egon behar ziren, egun eguzkitsu eta goxoak bigarren goan; eta bien artean kobako eszena, katarsi momentua bailitzan. Oinatzetan atzera egin eta gero, behin guztiaren iturburua ikusita, mundua beste era batera ikus zezakeen Izarok.

—Benetan hori pentsatzen duzu, Izaro? —galdegin zion Iratik plantak egiten ari ote zen jakin nahian.

—Ez duzu uste mundu ikuskera interesgarria ez denik, Irati? Ulertzen dut Josuk zer esan nahi duen, eta niri, egiari zor, gutxi asko axola dit nola erakutsi nahi duen egiten nabilen bidaia hau nire euskal jatorrietara. Besterik gabe, ni egungo pertsona bat naiz, zu bezalakoa, eta nire lanean ahal bezain ondo jardutea gustatzen zait.

—Aktorea zara?

Egia esan, telenobela mexikar bateko protagonista izateko itxura guztia zeukan Izarok. Agian gaiztoaren rolean hobeto. Bai, aitaren negozioa oinordekotzan jaso duen mutil gazte eder eta ez jakinaren amorantea, baina atzetik bere plan maltzurra osatzen doana negozioaren jabe egiteko.

—Hori da hori imajinazioa duzuna, Irati! —umoretsu.

—Serie zalea naiz eta telenobela mexikar horietako zenbait osorik ikusi nituen bere garaian.

—Badirudi zertxobait argitzen ari dela. Aprobetxa dezagun!

Kobazuloan sarrarazi zuen berriro ere Izaro. Izpi batzuk bakarrik izan ziren, baina hain eszeptiko zebilen Iratiri ere efektu hura gustatu zitzaion, nahiz eta hitzez ez zuen halakorik onartu. “Hau ona da!”, oihuka Josu inguru guztiak entzuteko moduan. Izaro ikustera hurbildu zen, eta Iratik ere, disimuluan, sorbalda gaintetik begiratzen zuen.

Herrira jaitsi zirenean zerbait bazkaltzeko aitzakian, Izarok komentuan beste birentzat presta zezaketen galdetuko zuela aipatu zien. Gosez ez zirela geratuko zin egin eta ama nagusiari hots egin zion. Arazorik ez zela egongo, baina denbora pixka bat gehiago emateko eta ordu biak aldera azal zitezela. Denbora egiteko garagardo bana eskatu zuten.

Josuk parean zuen eraikineko hormako armarrarian iltzatuta zituen begiak. Harrituta zegoen zenbat armarri zeuden ikusita eta bere imajinazioan historiaren istorioak artikulatzen zituen. Norbait izan ziren noizbait. Jaun noble burujabeak, euren lurak justiziaz gobernatzen zituztenak atzerriko tirania maltzurretatik babestuz. Eta, beharrezko baldin bazen, baita bizia eman ere.

Sumatu zuenean bi nesken elkarrizketa hutsalakerian agortu zela, kamera geldiarazi zuen hark ez zuelakoan bideoaren benetako esentzia asetzen. Kargu hartu zion Izarok erabaki haren motiboak eskatuz. Modernoak ez zuela tokirik zinta hartan erantzun zion, milaka urtetako mistikarekin herren egiten zuen eta nahi eta ezinean bilakatzen zen. Iragan urruneko mistika, iragan gertuko epika heroikoa eta egungo hutsalakeria gordina. Hori zen euskal zeraren kondena totala.

—Atzo zenioen harrien negarra hobeto ulertzen dut gaur.

Erdi Aroko dorretxeetan artikulatzen ziren guden erromantizismorik ez zuen Iratiren informatikari lanak, ez eta Xabierrekin zeukan harremanean geroz eta nabarmenagoak ziren pitzadurek ere. Halako enpatia gabezia tarteko, bi neskak kexatu zitzaizkionaldi berean. Bien artean sortzen zebilen konplizitatea gogaikarri bihurtu zitzaion Josuri, batez ere Iratik bereak eta bi esateko baliatu baitzuen aukera.

Lehenik eta behin, euskal periferian aurkitzen zela, eta gipuzkoar euskalzentrisismo eta handiustekeriak lekuz kanpo zeudela. Euskal kultura, historia eta ondarearen zama bizkar gainean eraman nahi zuen heroi homeriko bat zen, moderno nostalgiko baten aireetan hegaka, zeinak epizentroa handitu beste asmorik ez baitzuen periferia alboratuz. Euskal mito antzu baten atzetik zebilela leporatzea euskal munduaren kontrako erasotzat hartu zuen Josuk.

—Zu Hernanikoa zara eta ni Aiarakoa, eta zuk ez didazu esango nolakoa izan behar dudan euskaldun bezala. Baina maitasun eta kariño guztiarekin, e?

Amorruaren azkura tarteko, kamera piztu eta leihoaren ondoan kokatu zuen hortik hirurak ondo enfokatuta egongo zirelakoan. Hori bai izan zela guztiz inprobisatua. Behin Josuk bere tokia hartuta, Izarori begiratu eta zera bota zion:

—Zer uste duzu dela euskal kultura?

Mexikarra erabat lur eta zur geratu zen galderarekin. Ulergarria zeharo. Hori ez zuen oztopo izan ahoa mutu mantentzeko, halere.

—Ni kultura horren parte naiz, ezta? —galdezka ekin zion jardunari.

Diaspora enegarren euskal probintzia gisa hartua zegoen aspalditik. Euskal jatorria izan zezakeen edonor ospearen eta sonaren aparretan altxatzen zenean, haren genealogiari hautsak segituan kenduko zizkieten batek baino gehiagok halako baserri edo auzotatik bizi hobearen bila alde egin zuena aurkitu arte.

Izarorena tristeagoa zen. Ez zuen epikarik bere istorio genealogikoak. Umezurztegi bateko sagaren enegarren sasikumea izan zitekeen, eguneko ibiliaren gurpilean harrapatuta geratu ziren miserableen oinordekoa. Horrek eragiten zizkion buruhaustek hutsaren hurrengoak ziren, ordea. Genealogiak baliagarriak ziren Norbait zarela erakutsi nahi bazenu, Frantziako errege titulua eskatzeko adibidez. Bestela, beti zegoen koroa lapurtu eta norberak bere burua Frantziako errege izendatzeko aukera.

—Tokian tokiko odolaren ezaugarriak mantentzen badira, demagun, ehuneko zenbatekoa izango litzateke nire euskalduntasuna? Ehuneko hogeit hamar? Gutxiago igual? Seguru odol indigena gehiago dudala. Mestizoa finean. Eta halere, badirudi zure begietara Irati baino euskaldunagoa naizela.

Iratik, dorretxez inguratuta bizi arren, aspalditik galduta zuen epikarako interesa. Eguneroko lanean, eguneroko keinuetan aldatzen ziren gauzak, eta ez istorio, legenda eta mitoei begira, liluratuta, ergel baten pare lerdea erortzen eta kitzikadura medio kanpaia astintzen. Jendaurrean manerak mantentzen zituen, baina konfiantzan erromantizismo kiratseko zabor hori guztia aurpegira botatzen zion bota

behar zionari. Josuk, aldiz, ezin miresteari laga oinaztarren eta ganboatarren arteko gudak, Erdi Aroko epikak, Orreagako batailatik Amaiurkoraino.

—Ba gustura ibiliko zara Artziniegako Erdiko Aroko azokan. Laster izan beharko du. Zergatik ez zara bufoiz jantzita ateratzen?

Izarori begiak zabaldu zitzaizkion bi izarren gisara. Pelikuletan-eta ikusita zituen Erdi Aroko eta Errenazimentuan kokatutako merkatuak —gehienak yankienak, zeinek inoiz ez duten halakorik izan, baina bakoitza bere fantasiarekin—, eta benetan interesgarria iruditu zitzaion bertatik bertara horrelako ospakizuna ikustea.

—Eta burdina lantzen duten errementariak ere egongo dira? Txundigarriak iruditzen zaizkit. Jada urteak dira, baina han Oaxacan bazegoen tipo bat eta sekulako irudiak egiten zituen burdina beroa landuz.

—Ba ezaguna dut sutegian lanean egon ohi dena. Bilbon bizi dela esango nuke, baina kontaktu zenbakia badut eta hitz egingo dugu gauzak nola egiten dituen ikusi nahi baduzu, Izaro.

—Bihotzez eskertuko nizuke —eta mugikorrean 14:12 ipintzen zuela ikusirik—: Igo gaitezen bazkaltzera, bestela hoztuko zaigu zopa edo pasta edo jarri digutena.

IRAGARPENEK ARRAZOI ZUTEN. Eguzkia hodeien artean zabaldu zen eta, bapo janda kafea hartzen ari zirela, hegoalderantz zegoen eliz dorre hartara joateko proposamena egin zuen Izarok.

—Soxora? Zer galdu zaizu bada han?

—Elizak ikusteko gogo sartu zait, Irati, eta gainera oturuntza hau nolabait jaitsarazi beharko dugu. Paseo bat ez zaigu gaizki etorriko.

—Maps-en arabera lau kilometro eta erdi dira joana.

—Ba hori, ordubete eskas bat igotzen eta beste horrenbeste jaisten. Ez da horrenbesterako.

Toki batetik bestera ibiltzearenak leher eginda utzi zuen Josu bera. Aldapa piko egiten zenean kamera bera ere gordetzen zuen, arnasa lasaiago hartzeko. Atari batetik zakurrak zaunkaka hasi zirenean hura jauzia egin zuen mutilak, beste bien barrerako. Animaliak segurtasun distantzian atsegin zituen, eta nahiz eta hesiaren beste aldean egon, hain ziren zaunkak ozenak, ezen errepidearen beste bazterreraino igaro baitzen. Iratik abisatu zion. Han baserri eta etxalde guztietan zegoen zakurren bat, normala zen bezala, ohi zedila handik ibili nahi bazuen.

Soxon bertan oinak jarri zituztenean, lilurak ihes egin zion Izarori. Zerbait biziagoa espero zuen han, baina harri isilak besterik ez zituen aurkitu. Inguruan zeuden etxaldeetako abereen marruak soilik ezkila desolatuen oihartzunak gainditzen zituen. Hitz egiteak ere errespetua ematen zion. Ez zen murru haien atzean norbait egon zitekeelako eta axola beharko ez liezazkiokeen elkarrizketak bere zurrumurruen koadernoan apuntatuko zituelako. Lekuz kanpo egotearen sentsazioa zen hura. Horregatik, hango etxeei eta dorreari zenbait argazki atera ostean, buelta egiteko proposamena egin zuen Izarok.

—Honetara igo gara orduan? —kexu zen Josu.

—Esploratzeak hau du motel, ezin jakin ezagutzen ez duzun toki batean zer aurkituko duzun.

—Zuk jakin beharko zenuen ba, Irati. Hau ez al da zure udalerrriaren parte?

Moskeatuta begiratu zion mutilari, honek kamera piztu eta zenbait irudi grabatzen zituenean. Elizako dorrea, zeina antzina jaun baten gotorleku izan baitzitekeen, eta inguratzen zuen paisaia berdea dokumentalari testuingurua emateko irudi paregabeak ziren. Iratiren sarkasmo hitzak ezabatuko zituen ordenagailu bidez.

—Badakizu, Josu? Txundituta utziko zaituen txoko bat ezagutzen dut.

—Uste duzu ezagutu beharrekoa izango dela?

—Ez daukat zalantzarik. Urtegi txiki bat da, guztiz ederra. Izarori ere gustatuko zaio.

Horrelakoetan Izaro berehala hasten zen mugimendua jartzen. Egunak bere osotasunean gozatzeko indarra nahikoa eta sobera zeukan antza. Berriz ere beherako bidean jarri ziren beraz, eta, bide erdian, ikusirik bazela bidexka bat urtegi hartara eramango zituena, handik aurrera. Errepidearen zurruntasuna albo batera utzi eta zuhaitz, harri eta lokatz artean abenturatu izanak esplorazio bidaia bateko kohortea zirela itxura ematen zuen. Aldapa pikoetan behera, Josuk ez zuen beste erremediorik izan nesken atzetik joatea baino.

—Pentsatzen nabil une hauetako ahotsak kendu eta musika garaikidea edo horrelako zerbait jartzea.

—Zure arnasestuak ezkutatzeko?

—Nahikoa lan dut ahal bezain ondo grabatu eta ez erortzearen artean.

—Begira Josu, behiak!

Erreka zulo bateraino iritsi ziren hainbat langa gainditu eta gero. Belaze berdean aurkitu zituzten behiak. Aitortu zion benetan liluragarria iruditzen zitzaiola animaliak etxetik hain gertu izatea. Bere Oaxacan ez zuen horrelako aukerarik. Natura mirestekoa artelan baten moduko zerbait bilakatu zela salatu zien beste bie. Naturatik geroz eta urrunago egoteak egin omen gaitu moderno eta ahazten zaizkigu gauzarik logikoenak, eguzkiaren argirik gabe izoztuko ginatekeela, adibidez. Horregatik, aurrerago zaldiak ikusi zituenean, eta haiek, kuriositatez edo auskalo zergatik hirukoarengana hurbildu zirenean, ezin izan zion motxilan zeraman ogi puska ahora ematearen tentazioari eutsi.

—Txikitán horrelako baten gainean trostan ibili nintzen. Egun ez dakit gai izango ote nintzatekeen.

Josuk gertu-gertutik grabatzen zion zaldiari jaten ematen ari zela. Zakur zaunkak, eta izua berriro. Inguruari begira hasi zen, baina ez zuen zuhaitz hostoen berdetasunaz haraindi ezer ikusten. Zakurrei beldurra ote zien galdetu zion Izarok jakin-minez.

—Gorroto ditut. Gainditu ez dudán txikitako trauma bat.

Barrez hasi zen Irati.

—Lasai. Baten bat agertzen bada, nik babestuko zaitut.

—Ez zaitetz trufaka hasi. Ez da txantxetako gauza!

Benetan bere onetik ateratzen zuen kontua zen zakurrena. Ze euskaldun klase izan daiteke bat zakurrak gustatzen ez zaizkiona eta aldi berean artzaina euskal arimaren irudi eginena dela sinesten duena? Norberaren kontraesanak norberak eraman behar ditu, ordea. Zaunkak geroz eta gehiago eta hurbilago aditzen zirela ohartuta, urtegi hartara zenbat geratzen zen galdegin zuen. Iratik erantzun zion, erreka jarraitu behar zutela.

Iritsitakoan, Izarok ezin zituen begiak kliskatu eszenaren edertasunagatik. Hiru ur jauzi bereizitan bezala erortzen zen goiko ura beheko lakutxora. Guztia zuhaitzen hosto berdeek inguratzen zuten, eta eguzki izpiak lotsati moduan sartzen ziren barruraino, benetan argitasun berezia emanik inguruari. Josuk atsedean hartzeko baliatu zuen, eta uraren melodia benetan erlaxagarria suertatu zitzaion halako eginkizunetarako. Ia lokartu ere egin zen ur harrien gainean eseritakoan.

Izarok oinetakoak kendu zituen behatz potoloaren puntarekin uraren tenperatura neurtzeko. Hasierako freskotasun zirrararen ostean, oin osoa sartu zuen barrura. Benetan atsegina zen.

—Zatozte.

Irati arrimatu zitzaion eta oinetakoak erantzita, lehenik oinak, gero belaunetaraino ia murgildu zen. Neskaren aurpegian halako zoriona ikusitakoan, arropa erantzi zuen. Iratik ezin ulertuta zertan zebilen, Izarok naturaltasunez osoz erantzun zion ura bainurako tenperatura egokian zegoela. Larrugorritan, ur freskoan murgil igerian. Bitartean, Josuk, zeharo lotsagorrituta eta kamera martxan, bainu hura filmatzen jarraitzen zuen. Eta hain zegoenez isilik, Irati ere hasi zen arropa erantzten. Kulerotan uretara jauzi egin zuen eta igerian Izarogana hurbildu.

—Esan dizut izugarri ona dagoela ura. Zu ere etor zaitez, Josu!

Orduan biratu zen Irati eta ohartu mutila eszena guztia grabatzen ari zela, baita bera ere.

—Ez zaizu otuko irudi horiek argitaratzea! Nire aurrean ezabatu beharko dituzu!

Josu harri eta zur zegoen, ez zen mugitu ere egin. Urtegiaren gainean hiru basurde ikaragarri ikusi zituen adi-adi berari begira.

II Le fantôme edo ikusten dena eta benetan dena ilusioak elkartzan dituenean

7

PERTSONA BAT HILDA topatu zuen poliziak. Gorputzak erabat desitxuratua zirudien, eta ez zeukan beste pertsona batek hildakoaren itxurarik. Basurdeen mendekuaz ziharduten zurrumurrak hasi ziren zabaltzen herrian. Hurrei kanpamentu eta udalekuetan kontatu ohi zaizkien beldurrezko istorio horietakoen antza zuen: mendira joan ziren mendizale batzuk galdu, basurdeek eraso eta haien haragiarekin elikatu ostean, haragi gehiagoren bila jaitsiko ziren menditik. Artziniega setiatua egongo zen ehundaka basurdez eta herritar guztiek adi-adi ibili beharko zuten, batik bat landaguneetan, basapiztia haien erasorik jasan nahi ez bazuten.

Alkatea batzar orokorra deitzera behartua egon zen, beti ere Ertzaintzak begirik kendu gabe. Ehiztariak aspalditik esan eta esan zebiltzan basurdeak kontrolik gabe ugaritzen ari zirela. Eta denak eskuetatik ihes egin zuenean, alferrikakoa zen negarrez hasia. Txostenaren arabera, Burgosen zegoen arazoaren muina. Horrek jurisdikzio arazoa zekarren, Artziniagak ezin baitzuen ezer egin bere lurretatik kanpo. Hori dena herritarrei azaldu behar zien, zeinak geroz eta urduriago baitzeuden basurde markak herritik oso hurbil azaltzen hasi zirenean.

—Batzar horretara joan behar dugu, Josu.

Basurdeen kontuak benetako zirrara eragin ziola zirudien. Mexikon ez da basurderik izango, agian? Josuri bost zitzaion. Tira, bost baino, ez zen lehentasunezkoa. Bilboko apartamentuan bere burutazioak eta fantasiak besterik ez zituen ahoan afaltzeko eta gosaltzeko uneetan. Izaro biluzik ikusi zuenetik bien artean zerbait zegoela sinetsita zen mutila. Iratik, baina, hori ez zela horrela errepikatzen zion. Behin eta berriro eta berriz, eta halere, ez zuen konbentzitzea lortzen. Bera han egonagatik ere, eta Irati berak ere bainua hartu bazuen ere, Josuren burmuinak erakarpenean eta amodio kontuak besterik ez zituen irudikatzen.

Geroz eta goragotik hegan eginda, kolpea handiagoa dela ohartarazi zion Iratik. Gomendioak entzuteko izan ohi dira, baina zakarretan bukatu ohi duten zirriborroen moduan pilatzen joan ziren Iratirenarekin ere, eta hiruzpalau egunez tematu ondoren, erorketa osteko kolpearekin amesten zuen neskak. Ihes moduko zerbait zen hartan pentsatzea, Mikelekin zuen harremanak geroz eta pitzadura gehiago azaltzen baitzituen. Tira, lehen goroldioak eta orbelak estaltzen zituenak ziren, baina nazkatu zen

egunerokotasunaren gorpilean erronka berririk gabe egoteaz. Ohikoa ez zen pizza eskatzea gerra deklarazioa izan zen.

Josu berandu zebilela erabat ahaztu zuten eztabaidaren baitan. Herri batzak luze iraun zuen.

Frontoia lepo bete zen. Udaletxeko pleno aretoan ez ziren han bildutako herritar guztiak sartzen, eta ertzainek operazio logistikoak kudeatzeko gune moduan izendatu zuten sudurraren puntan ipini zitzaielako. Etxahun inspektorea zen burua, noir pelikuletako detektibeen pare tabako eta whisky irenslu porrokatua. Halere, Gasteizek ez zuen ez New Yorken edo Parisen glamourrik, eta bere talentua trafikoko ezbehar eta gaizkile txikietan agortzen zuen era txarrean.

—Akaso Laudioko buruak ezin du basurdeenarekin eta kapitaleko norbait ekarri behar dute ordena ezartzera?

Halako ironiaz hitz egin zuen ehiztarietako batek, arazoaren gakoa basurde horiek guztiak tiroz akabatzea zela aspalditik pentsatuta.

Etxahuni askorik ez zitzaion axola bertakoek zer zeukaten esateko eta zer ez. Urte luzez ibilia zen lanean Ertzaintzan, eta behingoagatik geratzen zitzaizkion urte apurrak ahal bezain lasaien pasa eta erretiroa hartzeaz pentsatzen zegoen. Zuri-beltzeko detektibe misterioitsu eta indartsuaren mozorroa aspaldidanik gorde zuen armairuan. Horregatik denak harrিতuta utzi zituen Artziniegako hilketaren kasua bere gain hartu zuenean. Egia da Laudioko ertzainburuarekin halako gertutasuna zuela. Beharbada lagunak ziren, edota iraganean pasadizo txarren batetik libratu zuelako halako zorrak izan zitzakeen. Frontoira iritsi eta herritar guztien atzean Izaro eta Josu begiztatu zituen. Neskari begira adi-adi geratu zela denbora luzez.

Soxogutikoak, Santa Kolomakoak eta Erretes Tudelakoak ziren gaiak benetan arduratuta zeudenak, herri horietako lurak baitziren Burgosekin mugakideak. Uxaldiak baimentzeko eskatzen zioten alkateari. Honek ez zuen horren gaineko eskumenik, Aldundiari idatzi beharko zioten horretarako, burokraziak iraungo zuen guztia kontuan hartuta.

—Alegia, tiro egitea baimentzen ez diguten bitartean, basurde zikin horiek gurea den guztia izorra dezaketela. Oso ondo.

—Utikan paperak eta txorakeriak! Hemen arazoak di-da konpondu behar dira, eta basurde horiek begi artean tiro bat behar badute, ba tiro bat kopeta erdian. Ez da hain zaila.

—Konturatzen zarete pertsona bat hil dela kontu honekin guztiarekin? —inspektoreak ordena eta zuhurtzia ekarri nahian bere ustean zeharo nahasten zebilen eztabaidari.

Egia da jendea ahaztu zela hildakoaren kontuarekin. Ez herrian ez inguruetan ez zuten tipo haren berri, eta gorputegiko hobi batean amaitu zuen behin autopsia praktikatu eta gero. Albistegietan gaiaren inguruko jarraipen berezirik ere ez zuten egin, eta sarean berri eferbeszente horietako bat besterik ez zen izan.

Basurdeen urratsak eta zioak jarraituko zituztela onartu zen nahiz eta ez oso gogo onarekin. Tabernetan jarraitu zuen batzarrak ohi zen bezala eta bi gazteak agurtzekotan zirenean, Josuk martxa egin nahi baitzuen Bilbo aldera, Etxahun inspektorea gerturatu zitzaien. Izarori zuzendu zitzaion. Bazuen bere berri, Mexikotik etorritako neskatxa bat bere jatorriak ezagutzeko asmotan. Eta haren alboan kamera andere-txakurra. Non bat, han bestea.

—Sentitzen dut, baina hemendik aurrera ezingo zarete orain artean bezain aske ibili. Zuen hobe beharragatik da. Espero dut ulertuko duzuela.

—Noski, inspektore jauna. —erantzun zion Izarok—. Eta edozertan laguntza beharko bazenute, hemen izango gara prest.

—Estimatua dago.

Behin poliziak alde egindakoan, Josu xuxurlan hurreratu zitzaion Izarori, ea benetan lagundu behar ote zien euren lana egiten. Urrutitik nabari zitzaion mutilari ez zeukala horretarako interes handirik. Kotxerako bidea hartzekotan zenean, ea egun batzuk-edo Bilbon pasa nahi zituen galdegin zion, han ezer askorik ezingo zutela egin eta Iratiri eta Mikeli axola ez bazitzaien, aukera bat izan zitekeela Bilbo bera ezagutzeko behin baino gehiagotan azaldu zuen moduan. Harremanetan egongo ziren.

SEKULAKO KALAPITA entzuten zen atea zabaldu aurretik ere. Irati eta Mikel eztabaida betean zeuden eta ez ziren ohartu ere egin Josu etxera sartu zela. Gonbidatuen gelan sartu zen. Aurikularrak jantzi eta bere zereginetara. Ez zitzaion momentu egokia iruditu Izaro Bilbora gonbidatzeko.

Ea biharko gauzak baretzen diren. 21:56

Ba hemen gauzak geroz eta psikotikoago jartzen ari dira. 21:58

Mojak ere beldurtuta daude basurdeekin. 21:59

Otoitz egin diezaiotela jainkoari. 22:00

Horretan ari dira. 22:00

Komentuko harresitzarrak ez dituzte saltatuko. 22:01

Hori seguru. 22:01

Zuk uste duzu konponduko dutela? 22:02

Ehiztariak diozu? 22:02

Iratik eta Mikelek. 22:03

Ez da lehenengo aldia. 22:03

Mikelek azken hilabete gatazkatsuak izan dituztela kontatu izan dit. 22:03

Baina eztabaidak, besterik ez. 22:04

Abisatu amaitzen badute. 22:06

Iratirekin hitz egin nahi dut. 22:06

[...]

Oraintxe isildu dira. 22:47

Isiltasunak ez du esan nahi hitzak agortu direnik. Esan nahi ez direnak ez esateko estrategia besterik ez da izaten gehienetan. Hanka sartzea izan daitekeelako, edo hanka sartzea dela pentsatzen delako.

Hirugarrengoen hitzak entzun nahi zituzten orduan. Eta bat-batean, mezua mugikorrean. Burkotik burua jaso eta aparatua hartu zuen. Izarorena zen.

Biharamunerako geratu ziren Bilboko kafetegi batean. Larunbata zen eta atsegin izaten zuen norabide zehatzik gabe kaleetan barrena galtzea. Normalean bakardadean egitea gustatzen zitzaion, baina Izaroren konpainia aproposa zelakoan, eguerdi aldera egin zuten hitzordua autobus geltokian.

—Beharbada txorakeria bat irudituko zaizu —hasi zitzaion esaten Irati—, baina zurekin beste askorekin baino erosoago sentitzen naiz mamuei buruz hizketan.

Ibaiari begira geratu ziren barandaren kontra jarrita. Jendea paseoan zebilen hara eta hona denborak eta urrats kopuruak neurtutako ibilbideetan.

—Eta zure lagunak?

—Noizbehinka ikusten ditut, baina gehienek beste gauza batzuk dituzte buruan. Badakizu, ama izan nahi dutela edota ezkontza planak eta horrelako gauzak.

—Bai, ulertzen dizut. Ni ere fase horretan nago.

Ezustean hartu zuen Irati kontuak. Baina are gehiago kezkatu ez zedin, bere ezagunak ere antzeko egoeran aurkitzen zirela argitu zion. Iزارo, ordea, bidaiaz bidaia ibili ohi zen. Artearen historia ikasi zuen bere garaian, eta ordutik artelanei lotuta eta museo museo ibili izan da lanean. Hori dela eta jaioterritik kanpo denbora asko eman izan du, zeina lagunak aurpegiatu dioten behin baino gehiagotan ez egon izana euren bizitzako unerik onenetan.

Izarok, ordea, ez zuen horretaz hitz egiteko gogo askorik erakusten. Gaiaz jakitun izateko beharrezko datuak eman eta gero, bestelako zerbaiti buruz hasten zen hizketan. Iratik ere ez zuen nahi une oro elkarrizketaren erdigune izatea. Barruan zeramatzanak hustu nahi zituen, eta ibaiak itsaso zabalera eramaten bazituen betiko, hobe. Itsasaldetik sartzen zen haizeak, ordea, zerurantz altxatzen zituen pentsamendu pisutsu haiek denak, agian hodeietan itsatsi eta etorkizuneko egun euritsu batean eror zitezten malenkoniaren izenean.

Dekadentzia margotuaren itsasadar postmodernoak, korrikalari mekanikoen joan-etorriak eta haizearen ustezko freskotasunak zerbait hartzeko proposamen unisonoa egitera eraman zituen bai Iزارo eta bai Irati. Elkarri barre eginda abiatu ziren inguruko taberna batera eta bertan, mexikarraren harridurarako, Iratik garagardo handi eta hotza eskatu zuen.

—Zer gertatzen da?

—Barruak nahastuta ditudanean nik ere garagardo hotza edateko ohitura dudala, Irati.

Garagardoek luzerako eman zuten, azkenerako afaltzeko ordua bera ere ahazteraino. Artziniegara itzultzeko beranduegi zen, eta etxean tokia zuela esan eta gero, beste garagardo bana eskatu zituen Iratik.

—Eta ez bazaio gustatzen, niri ere ez zitzaidan gustatu zinemagile arraro hori etxean sartzea. Gainera pentsatzen du zuk zerbait nahi duzula berarekin urtegia larrugorritan bainatu zinelako.

—Benetan hori pentsatzen duela Josuk?

Galdera jakin-mina adierazten zuen tonuan artikulatu izanak Iratiren pentsamenduetan halako susmo behe lainoa zabaldu zuen. Ezinezkoa zen Izaro bezalako neska bat Josurekin interesatua egotea, zerbait antinaturala iruditzen zitzaion. Halere, bera ez zen inor euren artean sartzeko, eta iradoki zion benetan poztuko zela mutila baldin eta gonbidatuen gelan topatuko balu. Hori Tinderreko norbait eraman ez bazuen, ze seguru zegoen Mikelek ez ziola horrelako ezertarako oztoporik jarriko.

—Gutxienean norbaitek larrutan egingo du gure etxean.

Baziren lau hilabete sexurik gabe. Eta maitasun keinuak mekanikoak bilakatu ziren edo erosketa zerrendan apuntatu beharrekoen artean aurkitzen ziren. Agendak aurrez jakin zitezkeen egin beharrekoak beteta zeuden eta Anari buklean entzutea bezain intimoa zen etxean bakarrik aurkitzen zenean masturbatzea.

—Konpondu ezin bada, zertarako jarraitu pitzadurak salto ezinezkoekin lotzen?

—Kirol olinpiko izendatu beharko lukete: jauzi emozionala.

—Testosterona falta zaio kirol gisa onar dezaten.

Lauak edo bostak ziren etxera iritsi zirenean. Bakoitza aurrez okupatuta zeuden oheetan sartu ziren.

JOSU ERABAT KONBENTZITUTA ZEGOEN Izaro erakartzera iritsi zela bere artelanaren bitartez. Gutxienez bost bider errepikatu zion Mikeli makarroi simple batzuk bazkaltzen zituzten bitartean. Sukalderako ez zuten sekula esku onik izan, eta gauza errazekin konformatzekoak ziren biak ala biak. Hala, gehiegi bigundu ziren makarroiak irenstera mugatu zen Mikel eta Josuk bitartean bakarrizketa ia erretorikoa botatzen zuen.

—Iratik goizean alde egin du eta ez dizkit mezuak erantzuten eta ez dakit non dagoen ere.

Josuk ez zion garrantzi handirik eman lagunaren esanari. Haizea hartzera edo joango zen. Behin lasaitutakoan itzuliko zela. Esanak esan, ez zen konbentzitu. Bidaiaren amaiera ailegatzear izatearen sentipena, nahiz eta aurretik ate kolpeka zebilen eta ez zen ohartzera ere iritsi.

—Ezetz, motel, hi beti okerreanean. Bikote arteko eztabaida txatxu bat besterik ez zuan izan. Ikusiko duk nola dena konponduko den. Ilusio bat.

—Ilusio bat duk hik buruan duana Izaro horrekin. Jaitsi hadi behingoz mundu errealer! Zinemagile deitzen haizenetik, bazirudik hodeietan bizi haizela.

—Inbidia, hori duk hik duana. Konformatu hintzen lehenengo txolinarekin eta pare bat urte on eta gero ez dakik gauzak inertziatz edo nahi ditualako egiten dituan.

Une batez, etxetik botatzekotan egon zen gonbidatua. Ahal bezain hotz pentsatuta, badaezpada inguruan mantentzea egoki zuela iritzi zion Mikelek eta ez zuen halako bat-bateko erabakirik hartu. Bazkaloste guztia mutu pasa zuten, harik eta Josuren mugikorra zoro baten pare jo eta jo hasi zen arte. Zenbaki ezezaguna zen, eta, normalean erantzuteko ohitura bazuen ere, egun hartan ez zegoen telefonoz hitz egiteko gogoz. Filmaren kontuarekin buru-belarri murgilduta zebilen bere galaxia paraleloan. Laugarren aldiz deitu ziotenean Mikelek berak erregutu zion behingogatik erantzuteko.

—Josurekin hitz egin nahiko nuke.

—Bai, ni naiz. Begira, nahiko okupatu...

—Etxahun inspektorea naiz. Entzun, mesedez. Artziniegako ezbeharrei lotuta egiten ari garen ikerketaren harira aurrerapauso batzuk eman ditugu, baina zure laguntza behar genuke.

—Eta zer egin nezake nik?

—Azken egunetan herriko hainbat tokitan grabatzen egon zara, eta baliteke pistaren bat edo zerbait susmagarria aurkitzea zure grabazio horietan. Horregatik, eskertuko genizuke kopia bat bidaliko bazenigu.

Ahotsaren tonuak eskakizunetik gutxi zuen. Bazirudien berehalakoan nahi zituela irudi guztiak, eta aitzakiarik ere ez zuen ezezkorik emateko. Beraz, e-mail bidez pasako zizkiola eta kopia bat egiten hasi zen. Etxahun inspektoreak zuzenean eskura pasatzen bazizkion hobe izango zela esan zion, ez zela teknologiarekin oso ona eta nahiago zuela pendrive batean eramaten bazion.

—Laudioko ertzain-etxean nago. Hemen egongo naiz esperoan.

Otsoaren ahora bidean zegoela sentitu zuen deia amaitutakoan. Otsoaren ahora edo pelikula bateko bilauaren gotorleku sekretura. Bene-benetan autoak matxura bat izateko otoitz egin zuen nahiz eta federik ez izan eta, bestelako aitzakia eroren bat artikulatzen saiatu bazen ere, jada Laudiorako bidean zihoan.

Informatzaile bat bailitzan sentitzen zen hara iritsitakoan. Begirada guztiak mespretxuzkoak iruditzen zitzaizkion eta erabat kikilduta eta burumakur sartu zen barrura. Han zegoen Etxahun inspektorea esperoan. Gizon handia zen tripaz gain, sendo itxura emanik. Hiruzpalau eguneko bizarrak utzikeria eta bere lanarekiko fanatismoaren artean funanbulistarena egiten zuen. Itxurak askorik ardura ez zion seinale. Amodioan zortetik izan ez zuela esatea ez da gehiegi, nahiz eta zortea landu egin behar izaten den. Horregatik zeramatzan urteak, hamarkadak, bananduta.

Hoztasunez agurtu zuen gaztea eta pendrivea jasotzearekin batera 8. gelara abiatu ziren. Ordenagailura konektatu eta irudiak ikustean, susmagarria izan zitekeen edozertaz galdetzen zion mutilari. Momentuan garrantzirik eman gabeko gauzak, baina berriz ikustean lekuz kanpo zeudela ziruditenak edo gisakoak. Josuk, ordea, hamaika bider ikusi zituen irudi guztiak trantsizioak eta hurrenkerak aukeratzeko. Inoiz ez zuen ezer arraroa nabaritu, baina inspektoreak ongi begira zezan eskatzen zion.

Nekea izango zen beharbada, han egotearen urduritasunak eragindakoa dudarik gabe, eta ezeren susmorik ez zuela errepikatu zion poliziarari aterako bidea hartzen zuelarik. Deseroso sentitzen zen galdeketa inprobisatu hartan, eta pelikuletako esaldiak gogoratuz, ea bere aurkako zerbait ote zuten edo bakean uzteko eskatu zion.

—Edozer gogoratuz gero, abisatu.

Etxahunen hitzak hain ziren pisutsuak, hiriburura iritsitakoan oraindik belarri ertzean nabari zuela hitz haien oihartzuna.

Etxean ez zegoen inor. Goiz oheratu zuen gorputz txarrarekin.

ASTELEHENEAN MENDIRA joan ziren Iزارo eta Josu. Komentuko leihotik ikusten zuen gailurra ezagutzeko gogoz zegoen, eta Artziniegatik nahi bezala mugitzeko baimenik ez izanda ere — basurdeengatik, noski—, Iزارok kaiola hartatik atera nahi zuen. Josuk ez zion kontrakorik esan, nahiz eta mendia ez zen bere habitat naturala. Nahiago izaten zuen behetik tontorrek begiratu beheko lurrik tontoretik baino. Horregatik, Xabierren mendiko botak jantzita abiatu zenean Iزارoren bizitasunaren atzetik, bere arnasestuak eta kamisetaren gaineko izerdi putzuak patetiko ikusten ziren. Bere imajinazioan aurkitzen zen konkista baterako urrats patetiko moduan. Inor ez da jabetzen bere patetismoaz norbera denean patetikoa, baina.

Gailurra eskuratu izana kalbarioaren parte besterik ez zen izan Josurentzat. Iزارok, ordea, ikuspegi hartatik mundua bere egiteko ahalmena izango zuela sinetsita zegoen. Inurriak, oinpean menderatuak edota bi hatzen musu artean. Halere, halako asmo zital eta jainkotiarretarako miradore egokiena jada okupatua zuen gizon gazteak. Ez zituen berrogeiak urruti izango, lehen ileak urdintzen hasiak zitzaizkion, eta agian horrek ematen zion aire misteriotsua, paisaiari miresmenez so egiten zion bitartean. Iزارok ere tipoak bere gozamenerako hartua zuen espazioa dastatu nahi zuenez, gerturatu zitzaion Josuren ezintasunak behar zuen laguntza eskaini gabe.

—Menderatuko bazenu dena, mugituko bazenitu antzezlan bateko txotxongilo legez, zeinen zorakeria gogoangarria litzatekeen.

—Zorakeria gogoangarria?

—Zoroangarria!

Tipoa pitzatuta zegoela susmatu zuen eta albo batera uztea ideia ona izan zitekeen. Baina hark hizketan jarraitzeko asmoak zituen, eta lur haietan agindu zuten banderizo eta bandoleroen istorioak kontatzeari ekin zion inork halakorik eskatu gabe.

—Zu ze bandotakoa zara? —galdegin zion Iزارori.

Paisaiari begira harrapatu zuen galderak. Ur trago bat edan eta iristear zen Josuri jaurti zion botila azken animo batzuk emanaz.

—Irabazlearen bandoan beti.

—O! —alde batetik harridura eraginda, eta bestetik damututa—. Hori bai bando aspergarria.

Arnasari buelta oraindik eman ez ziola galdetu zion Iزارori ea nor zen tipo xeblebre hura. Galtzaileen bandoaren jarraitzailea zela izan zen neskaren erantzuna, eta aurrekoa baino barregarriagoa iruditu behar zitzaion, irriz hasi baitzen entzun ahala. Zorrotik libreta atera eta zerbait apuntatu zuen “ahaztu

baino lehen” esatearekin batera. Gero, bere tokitik mugitu zen han eser zedin Iزارo, hala gozatzeko Artziniega eta inguru guztiaz. Gaileta batzuk ere eskaini zizkien oso ondo prestatuta igo ez ziren bi gazteei.

Hasierako inpresio arraro eta konfiantza gabekoaren ostean jakin izan zuten indianoen etxe horietako bat erosi zuen idazlea zela. Kirmen deitzen zen. Manhattan eta Bronxeko azkartasuna eta mugimendua arrotz, fikzio, mito zitzaienen ondoan hartu nahi zuen sauvignon beltza. Aitormen gisa esan zuela zirudien, han goitik Askatasunaren anderea izan zitekeela, baina ongi etorria errutinari egiten ziona aukera berriei baino. Eta barrez lehertzen zen berriz. Txiste bat ote zen dena berarentzat? Pentsa zezaketen halakorik beste bi gazteek.

—Dokumental bat edo grabatzen zabilzate, ezta? —litxarrerria poltsa irensten hasita—. Entzun dut, bai, Artziniegako toki ezberdinetan ibili zarete halako istorio oteizatar modukoa eginez. Historiaurreko mistika eta horrelako kontuak. Ba hemen zaudetela aprobeztatuz, nik filmatuko nuke bat horrela, bi hatzekin herriari tamaina hartzen bazina bezala. Ez zaizue ona iruditzen? Eta horrekin lotuta, egon zarete Santxotenaren museoan? Nola ezetz? Horra joan behar duzue! Ezta etnografia museora eta sakrora? Mesedez. Ze film klase duzue zuek buruan? Bihar egingo dizuet bisita gidatu duin bat.

—Estimatzen da, Kirmen, baina ez genuke enbarazurik egin nahi. Zure oporrez goza ezazu lasai.

Alferrikakoak izan ziren esan guztiak, eta goizeko bederatziak eta erdian frontoian egin zuten hitzordua. Josuk ez zuen oso begi onez ikusi kontu hura. Alde batetik, normala zen. Bere ideiak hankaz gora jarriko zituen ahobero batekin topo egin zutela sinetsita zegoen. Izarok, ordea, misterioari oihala kendu nahi zion, argitara eraman erakarpen haren arrazoiak. Eta beraz, Josuk bazuen beste motibo bat zuhurtziaz hurreratzeko Kirmenengana: akaso izan al zitekeen beste maitasun arerio bat?

Irudi gutxi eskuratu eta pentsamendu askotan galdu. Pentsamendu antzuak gehiengoa. Fantasiatik hurbilago zeudenak errealitate dastagarritik baino. Lastima zen. Halako dedukzio lan onak egiten zituen eszena egokienak eskuratzeko, eta gero halako ezgauza begien aurrekoa irakurtzeko.

—Ei, Josu! Esnatu! Hor zaude? —kriskitin eginez begien aurrean—. Goizean mendira joan gara eta leher egina dago gizajoa.

Ezin sinisturik entzundakoa, Mikel zeharo aztoratuta hasi zitzaien errietan. Basurdeen plagarekin, nori burura ote ziezaiokeen mendira joatea bezalako zorakeriarik? ETBkoak ere agertzekoak omen ziren iluntzeko albistegietan zuzeneko emankizuna egiteko, eta kazetariak ezin zuten halakorik jakin. Haien jakin-mina, inozentziaren eta maleziaren arteko orekan, tranpa maltzurra bihur zitekeen esanen arabera.

Kamera eta fokuak ikusiz gero, handik urruntzeko agindua eman zien.

Garazi azaldu zen, ordea, Etxepare Institutuko kontaktua. Gertatzen ari zenaren berri izan orduko, autoa hartu eta Artziniegarako bidea hartu zuen. Institutuari falta zitzaiona zen ekimenak zekarren eztabaidari basapiztien eraso bat gehitzea, nori eta partaide bati.

—Telefonoz dei zenezakeen.

—Mesedez, Izaro. Ertzainburuarekin hitz egin dut, eta herrian gertatzen ari diren gorabehera guztiak kontatu dizkit. Aspertzeko tarterik ez duzula izan ematen du. Eta Josu, zuk dena ondo?

Oraindik goizeko nekearen arrastoak gainean zituen. Kolaren kafeinak behin-behinean bakarrik zabaltzen zizkion begiak. Kaleko aztoramendua eta buila uraren murmurioa bezalakoa ziren, loaldi sakonera eramateko formulak. Izarok pare bat aldiz astindu zuen mutila, eta beste kola bat eskatu ere autoa hartu aurretik. Inork espero ez zuena izan zen behin autoa hartu eta handik gutxira auto istripua izan zuela. Ez zen bereziki larria izan, baina nahikoa helikopteroaren zarata inguru guztia zer gertatu zen galdezka jartzeko.

Anbulantziak eraiki berriko moteltzaileak ezin zituenez gainditu mediku arrazoiak tarteko, hegan joan behar izaten zuten zauritu eta gaixoek ospitalera. Josurena ez zen ezer larria izan, baina istripuak eragin ziezazkiokeen lesioak eta beste aztertzea komenigarria zen. Buruko traumatismoak ez dira batere atseginak izaten, eta albo kalteak momentuan beharrean, epe ertain-luzera agertu daitezke. Badaezpadakoan, gaua Bilboko ospitalean pasa zuen helikopteroz egindako bidaiaren esperientziarekin.

Mikelekin agertu zen Izaro biharamunean. Medikiak alta eman zion, froga guztiak ongi baitzeuden. Susto hutsean geratu zela esan beharko.

—Autoa txatarrerako geratu zaizu, motel.

—Esan nizun hobe zenuela komentuan nirekin geratu. Gero horrelako gauzak gertatzen dira, eta gaitz erdi ez den ezer okerragoa izan.

Barru-barrutik kezkatuta zegoela sinetsita, irribarre pikaro batekin erantzun zion neskari. Baina orduan ohartu zen oharkabeaz: autoa txatarrerako bazegoen, kamera bera ere ez ote zen egoera berean aurkituko? Eta usteak erdia ustel izateko itxaropenez errezo fedegabeak bere baitarako esanez, Izaro izan zen berria eman ziona. Kolpea leundu nahian, bezperakoak ez ziren irudi guztiak ordenagailuan gordeta zituela erantzunez itxi zuen gaia. Bestela, Etxahun inspektoreari ere eska liezazkioke, emandako kopiaren kopia eginez.

Benetako estimua zion kamera hari. Objektu batetiko lotura absurdo horietakoa. Londresen erosi zuen bigarren eskuko azokan jada deskatalogatutako altxorra. Garazik aseguruak kostuak bere gain hartzen

zituela aipatu bazion ere, emozioak eta sentimenduak ekonomia monetariotik kanpo zeuden, eta burumakurrago ibili zen ondorengo egunetan.

Izarok kamera berri bat ere oparitu zion, baina ez zen berdina. Artziniegako jendearekin bazkari bat egitea ere bururatu zitzaion neskari. Basurde ehizak benetako mehatxupearan zeukan herria, eta animoak ez zeuden festarako. Josuk berak ere nahiago zuen herritik aparte mantendu, batez ere zakurrak nonahi topa zitezkeelako, eta atsedean hartzeko aprobetxatu zituen pare bat egun. Gorobel gainean ezagututako tipoarekin zuten hitzorduari itsusi ez egiteko, ea atzera zezaketen galdetzeko eskatu zion Izarori, zeinak komentuko mojekin harremana estutzeko baliatu baitzuen.

—Badakizu txikitan moja izatea pasa zitzaidala burutik?

Bazkaria zerbitzatzen ari zitzaion mojak ez zituen Izarok baino urte askoz gehiago izango. Orokorrean han zeuden denak gazteak ziren, eta neskaren harridurarako, denak atzerritarrak. Filipinarrak, hain zuzen ere. Moja gaztea mexikarrak esandakoarekin harrিতuta eta liluratuta aldi berean, aulkia hartu eta berriketan hasi zen.

—Eta zergatik ez zenuen hautua egin?

—Ohartu nintzen elizetako artea gustatzen zitzaidala eta hori ikastea erabaki nuen. Eta zuk nolatan amaitu duzu hemen?

Kontatu zion Japonian pasa zituela zenbait urte lanean. Gero Jainkoaren deia sentitu, eta ibili horrek eraman zuela Artziniegara. Zeharo gustura, alai ikusten zitzaion, eta Izarok jakin-minez, ea egun batez mojaren bizitza egin zezakeen galdetu zion. Beste behin ere harridura eta lilura, moja gaztearen aurpegian. Ama nagusiari galdetu beharreko gauza zela erantzutera mugatu zen, baina erantzuna segituan jasoko zuelakoan zegoen Izaro bera.

Egongelan zegoen liburutegian topatu zuen biblia irakurtzen harrapatu zuen moja gazteak, komentutik egongela hartara ematen zuen atea zabaltzerakoan. Bere atzetik zekarren ama nagusia, zeina behin baino gehiagotan agertu zen jangelara hitz truke arinak izatera batik batik egonaldiaren berri izateko. Eta egongelan sartu zenean, Izarori galdetu zion egun batez moja izatearena serio galdegiten zuen.

—Zatoz gurekin, beraz.

EHIZA ZAKURREN ZAUNKEK atmosfera osoa hartu zuten. Azken egunetako ezbeharrek presionatuta, basurdeen erasoak uste baino gehiago ugaritu baitziren, Aldundiak eraso haietatik babesteko neurriak hartu behar izan zituen. Ehiztariak bildu eta ehiza baimena eman zien basapiztien mehatxuari aurre egiteko.

Hasiera batean huskeria hutsa izango zelakoan, gehiegi luzatzen ari zen gerra bilakatu zen. Basurdeek geroz eta handiagoak ziruditen, zoraturik eta arrapaladan malkar pikoetan behera. Naturaren mendeku gosea ote zen pentsa zezakeen fusilarekin piztiei apuntatzen zienetako edonork. Baina Etxahun inspektoreak, enpresa haren guztiaren buru zenak eta ehiztari porrokatua bere denbora librean, halako txatxukeriak burutik ezabatzeko agintzen zien, ardo zahatoak erdi konfiskatzearekin batera.

Egoera surrealistago bihurtzen joan zen egunak pasa ahala. Basurde hilotzak plazan pilatzen zituzten batailaren kostua neurtzeko manera bezala. Jendea eskandalizatuta zegoen. Talde ekologistekoek hura genozidio moduan bataiatu zuten. Tabernetan ere herritarren arteko eztabaidak ugariak ziren, ea zilegi zen hamarnaka, ehundaka basurde akabatzea, gau eta egun tiroka jardutea. Gurasoek haurrak urruntzen zituzten frontoi ingurutik. Gorpuak hiltegia eramaten zituzten brigadakoek. Tartetxo hura aprobetxatzen zuten odol lehorra garbitzeko.

Oka egiten amaituko zuen Josuk basurde hilen pila ikusitakoan ehiza zakurren presentzia autoritarioak goraka zetorrena geratu ez bazuen izuaren izuz.

—Ez nuen zakurrei halako beldurra zien inor ezagutzen. Nireari autoan ibiltzea gustatzen zaio, baina lasai, beti lo egoten da. Soilik hitz batekin hasten da zaunkaka.

—A bai? —Izarok—. Eta jakin badaiteke, zein da hitz hori?

—Lupin.

Kirmenen autora hurbildu ziren hiruak. Badaezpada kaletik ez ibiltzeko aholkua eman zuen udal kontzejuak, eta ez ateratzea oinez herritik kanpora. Kilometro eskaseko tartea egongo zen landako gunera, baina gomendioak jarraitzea egokiena zenez, auto beltzean igo ziren guardian zegoen batek nora zihoazen galdekatu eta gero.

—Ez duzu uste pasatzen ari direla kontu honekin?

Izarok uste zuen Krimen idazle transgresorea izango zela, autoritatearen aurka bereak eta bi esateko dotorezia zuela bere idazlanetan, eta Artziniegan gertatzen ari zen anabasa surreala paranoia kolektiboaren emaitza zela: munstroak ikustea nonahi.

—Panikoak gainezka egin du eta orduan zerk funtzionatzen du? Ba indarkeria basatienak. Horrela izan da beti. Baina axola dutenak ez dira horiek, baizik eta anabasa aprobetxatzen dutenak.

Errepideari alai begiratzen zion.

Josuk elkarrizketa grabatzen zuen atzetik. Zurrun-zurrun zegoen Kirmenen zakurra bere atzean ikusi zuenetik. Gaitz erdi, lo baitzegoen. Tentsio hura ahazteko kamera berria probatzea aitzakia a proposa zen. Gizajoaren zoritxarrerako, ez zuen oso atsegin kamera berriaren irudia, baina Garazik ulertu beharko zituen estetika aldaketa haren arrazoiak.

—Zer gertatzen zaizu, motel?

—Ez da nik nahi nuena. Orain beste dokumental bat gehiago izango da.

Kopetilun, animorik gabe, makurka zebilen kamera puskatu zitzaiola jakin zuenetik. Errepidetik atera, errekarra jausi, bertan harrapatuta geratu, hantxe akabatu zitekeen; berari bost zitzaiola zirudien, ordea, bere bizitzarekiko estimu txikiena ere ez baitzuen azaltzen.

Santutegiko altxorrek ez istorio zaharrek ez zuten bere ilusioa piztea lortzen.

—Fantasiatzko nobela baterako adina informazio dago hemen —apaizarekin erdi brometan zioen Kirmenek.

Diotenez, milurteko erdiko artearen pean egin ohi zituzten batzak eta zinak, eta haren aurretik, eremu haietan agertu ohi zen ur putzuaren bueltan. Felipe II.a Espainiakoaren armariak santutegiaren atarian zeuden eta haren aita zenak, alegia, Karlos I.ak, txokolate katilua hartu omen zuen mojen komentuan. Jainkoak ere egin omen zuen bererik, Aiarako jaunari aurpegira trufa eginez. Santutegia Aiarako lurretan egin nahi baitzuen, baina Jainkoari ez gustatzen ideia eta gauero, obra materiala Aiaratik Artziniegara pasatzen ei zen. Harpa joleren baten pitokeria edo erregimen feudalaren aurkariren bat. Auskalo, errudunak ez ziren inoiz agertu. Goizez materiala berriro ere Aiarara lekualdatzeko eskatu zuenean Aiarako jaunak, uso zuri batek zirina egin zion burutik behera eta hura Ahalguztidunaren esana zela aintzakotzat hartuta, egungo tokian eraikitzeko agindua eman zuen.

Altxorrik preziatuena ondo gordeta zeukan, baina. Arteako Ama Birjinaren koroa zen hori, segurtasun neurri guztiak desaktibatu eta gero eskuratu zitekeena. Horretarako, parrokoak segurtasunaren kudeaketaz arduratzen zen enpresara deitu zuen, hiru bisitariei halako deskonfiantza keinua egin ostean.

—Guk badakigu zenbateko balioa duten gure altxorrek. Ez zaigu Kexaakoa gertatuko.

Jakin-minaren harra orroka hasi zitzaion Izarori, ohi bezala. Apaizari galdetu zion ea zer zen Kexaako kontu hori. Honek, deia erantzuten zioten bitartean, museo amerikar batek erosi zuen erretablea

baliotsu bati buruz hitz egin zion. Apetatsu samarra iruditu zitzaion kristaua, bereari ondo heltzen ziona alajaina. Horregatik ez zion askoz gehiago galdetu kontuari buruz, bai baitzekien huskeria eskuratuko zuela teman tematuta. Haatik, Kirmenek argitu zizkion zalantza guztiak.

Urritasun garaiak ziren eta Kexaan ez zuten ezta limosnatik bizitzeko lain ere. Chicagon bazen arte ehiztari on bat Kexaako erretaularen balio historiko eta artistikoa aintzat hartzeko kapaz zena. Elizan inork ez zekien horri buruz eta bi errealengatik saldu zuten trukean ahora sartzeko zerbait eskuratzen baitzuten. Gerora ohartu ziren egindako hanka sartzeaz, behin ehiztariak bere krimena gauzatu ondorenean.

Erresuma Batuko erreginarekin koroarekin alderatu ezin bazitekeen ere, bakoitzari berea, harribitxi eta zilarraren dirdirak edonor utz zezakeen txundituta. Josu bera bere letargiatik esnatu zela zirudien objektu preziatua filmatzeko desirak azaldu zituenean, baina apaiza, zeharo zorrotz, han ez kamera ez bestelako aparatu elektronikorik ezin zitekeela piztu agindu zuen aldareko tonuan. Behin eta berriz saiatu arren, horrek apaiza haserretzeko bakarrik balio izan zuen eta horregatik bisitariak ia handik botatzekotan egon zen Kirmenengatik izan ez balitz.

—Zeinen ederra litzatekeen eguzki argitan ikustea halako altxorra —amestu zuen Izarok.

—Duela gutxi atera genuen Ama Birjinaren eguneko segizioan.

Izarok Artziniegan lur hartu baino egun batzuk lehenago izan zen hori. Josuri segizio hura filmatu behar zuela sartu zitzaion kaskezurrean. Hurrengo urtean izan beharko zuela erantzutea ez zuen aski mutila konbentzitzeko.

—Eta zergatik Erdi Aroko azokan ez dugu simulatzen?

Kirmenen ideia ez zen apaizaren gustukoa izan. Erabateko heresia iruditzen zitzaion, ezin zitekeen onargarria izan. Apur bat eztabaida berotzen joan zen, eta garbi zegoen kristauak ez zuela bere iritzia aldatuko. Hala, Izarori burura etorri zitzaion apaiza eta liturgia kontuak aintzakotzat hartu gabe egin zezaketela segizioa aurrez esanda simulazio hutsa zela. Gainera, film batean agertuko zenaren aitzakian, seguru batek baino gehiagok parte hartu nahiko zutela.

—Nik ez dut hemengo materialik utziko! —haserre zioen apaizak.

—Moldatuko gara —aurpegiratu zion Izarok—. Mojak lagunak ditut eta seguru norbaitek etxean izango duela ama birjinarik.

Metaforikoki bada ere, ostikoka bota zituen bisitariak. Kirmen benetan umoretsu ageri zen, barrezka jaitsi zen herriraino, baina, aparkatu eta segizio hura nola egin zezaketen planeatzen hasi beharrean, herritik atera zen Bizkairako bidea hartuz. Ideia bat omen zuen, ezkutuan mantentzea egoki iritzi ziona.

EGUZKI GOXORA irtendako sugandilak istant batean desagertzen ziren belar zinten artean, izaturik, beraientzako piztia erraldoi erruki gabekoak baikara. Fruta arbolen berdetasunari muga egiten zion zementuaren zurruntasunak naturaren eta zibilizazioaren artean zu-hor-eta-ni-hemen iradokiz.

—Eta mugaren bi aldeetan daudenek berriro ere bat egin dezaten, artean bilatzen ditugu kohesioa eta erredentzioak.

Idazle bat, zinemagile bat, arte aditu bat eta orain eskultore bi elkartuta, intelektualismo saturazio batez hitz egin zezakeen halako munduak arrotzegi zaizkion batek, zeinak kultura herrikoaren mainstreamean igeri eginda aski duen Netflixen modako azken telesaila ikusteko denbora bilatzen futbolarekin elkar uztartuz.

Tailer-museoa zen hura. Atarian lanabesak elkarren artean lotuz egindako eskulturak zeuden, eta barruan egurraren usaina nabari zen. Xabier eta Teresa atera ziren barrutik. Ezaguna zuten Kirmen. Idazleak bere noizbehinkako, tantakako egonaldiak egiten zituenean Artziniegan, beti bazuen bisita bat erreserbatuta Santxotenan. Hura ere ez zen bestela izango, are gehiago hiru bisitariak zekarten ideia zoroangarria tarteko.

—Segizioaren simulazioa?

—Bai, baina materiala lortu behar dugu. Azkenean Izaro Mexikotik etorri zaigun euskal jatorriko neskatxa dugu eta sekulako ilusioa egiten dio Ama Birjinaren segizioa ikusteak. Halako bidaia eta gero, merezi du ba.

—Eta hitz egin al duzue udalarekin?

—Oraintxe nahiko lan dute basurdeen kontuarekin.

Izarok mugikorra atera eta Mikeli deitu zion derrepentean. Zalantzak ahal bezain azkar uxatzea hoberena. Gainera, edozein laguntza edo beste behar bazuten, berarekin hitz egin zezatela esana zien. Ez zion arazorik jarri horretarako, eta gehitu zuen benetan kurioa izango zela Erdi Aroko azokan bertan segizio kristau bat egotea.

—Elizan dauden pinturak bezain anakronikoa izango da hau ere —esanez amaitu zuen elkarrizketa Izarok. Gero parean zituenei zuzendu zitzaien—: Udaletxeak ez du arazorik jarriko horrelako ezer egiteko.

Kontua zen Arteakoa bezalako ama birjina bat eta bere koroa egitea. Itxurak egiteko zen, beraz ez zuen guztiz zehatza izan behar. Xabier eta Teresa ama birjina egiteaz arduratuko zirela adostu zuten, baina koroarena konplikatuagoa izango zen. Metala lantzeko ezagun on bat zuten, eta agian berak egin zezakeen horrelako lanik. Bera zen etnografia museoak kontratatzen zuena Erdi Aroko azokan sutegiko langilearen rola betetzeko. Hefeso deitzen zioten.

Ohartzerako herri guztia mobilizatuta zegoen. Ospatzeko, bere etxera gonbidatu zituen Kirmenek. Kontatu zien nola etxe hura indiano batena zen, ia bera bezalako bat, dirua Amerikan egin eta gero bere palazioa herrian egin zuena. Baina istorio edo legenda zaharrek ziotenaren arabera, jaun hura tenteldu eta tematu zen etxean lanean zeukan zerbitzari gaztearekin. Nahi zituenak eta bi egin zizkion, baita haurdun utzi ere. Halakorik ezin omen zen, eta goiko solairuan giltzapetu zuen jaunak, harik eta azkenean, neskatxak urkatzeko hautua egin arte. Orditik palazioa sorginduta dagoela esaten dute mihi zaharrek.

—Eta nik horregatik erosi nuen. Idazleak misterioa dagoen tokian behar du egon, eta bestela dena hankaz gora jarri, ez duzu uste, Josu? Zu zinemagilea zara eta ulertuko nauzu. Azken batean, segizioarekin egin berri duguna horixe da, herri guztia hankaz gora jarri.

—Basurdeen kontu hori ez balitz egongo, denak lasaiago ginатеke —kexu zen Izaro.

—Nago azken eraso batzuk egongo direla eta amaituko dela. Ikusi dituzu zenbat akabatu dituzten dagoeneko? Ezinezkoa da hainbeste egotea inguru hauetan.

Hori esan ahala, neska ohartu zen egongelako hormatik zintzilik basurde buru bat zuela. Akaso bera ere ehiztaria ote zen? Inongo momentutan ez zuen halakorik iradoki bere jokabideak, eta baliteke morbo hutsagatik edo probokazioaren probokazioz zeukala han jarrita. Deserosoa egin bazitzaion ere, ez begiratzea erabaki eta gaia zokoan uztea egoki zela iritzi zion, ez zeukanez ehiztarien jardunari, hiltzeari buruz jarduteko gogorik. Garagardoaren freskotasunean murgilduta, ea Kirmenen liburutegian kuxkuxea zezakeen itaundu zion. Honek “aurrera”, bere etxean balitz bezala. Fikzioari buruzko hainbat titulu topatu zituen, Maurice Leblanc eta Conan Doyle batik bat, baita Arretxe eta Borda ere. Saiakera mordo —fauna, natura, fisika, kimika, filosofia... Bere liburuak apalategiaren goiko solairuan zeuden. Haren esanahia zein zatekeen gogoetatu gabe, hatzaren zio kaotikoan jarraitu zuen gora behera, orain ezker orain eskuin. Sofatik filmatzen zuen Josuk. Nekatu aurpegia nabaritu zion idazleak garagardo lata eskainitakoan.

“Zer moduz zaude?” Susto hutsean gelditutako istripuak ez zion aztarna handirik utzi gorputzean. Handiena kamera apurtzea izan zen, eta bazirudien horri ere buelta ematen ari zitzaiola. Edo beharbada

iturakeria hutsa zen, eta barne-barnean sekulako nahigabea sentitzen zuen oraindik erlikia haren galeragatik. Hala ere, aurpegiko nekea zen nabari zitzaion bakarra.

—Goizetik nabari zitzaizun akituta. Azken egunetan mugimendu gehiegi eta ohitu gabea agian.

Halako zerbait izan zitekeen, egia baitzen Josuri gehiegi mugitzea ez zitzaiola gustatzen. Irakurketa patxadatsua, hitz trukeak Pasoliniren edota Truffauten zinema ikuskeraren inguruan, artearen funtzio sozialean ardaztutako eztabaidak; ariketa fisikoa agendatik kanpo geratzen zen sarri, eta garagardoarekiko zaletasuna tripotxean nabaritzen zitzaiola ere iradoki zion hura ukituz.

Mutilari ez zitzaion asko gustatu keinu hura. Kirmenek segituan ulertu zuen, eta besaulkian botata garagardoari zurruta eman zion.

—Super pelikula horretan ehizak agertu behar luke.

Kirmenek hori esan eta gero inork gutxik espero zezakeen hori egiten amaituko zutela. Are gutxiago Josuk berak. Bilbora iritsi berritan, giroa inoiz baino hotzagoa zen bikotearen artean. Jada ez zuten elkarrekin lo egiten zenbait egunetatik, eta horregatik Josuk ahal bezain denbora gehien pasatzen zuen etxetik kanpo. Baina kontatu zienean ehiza filmatzera joan behar zutela biharamunean, txundituta geratu ziren. Josuk zakurrei zien panikoa ia patologikoa zen, eta ehiztari, fusil, tiro hots eta basurde zoroen artean erotuko zelakoan ziren.

—Mononokeren istorioa dirudi han daramaten dramak.

—Zure friki kontuek ez naute batere baretzen, badakizu, Irati?

—Ba ez izan ergela eta ez zaitez horretara joan, hasiberria dirudizu.

—Bere lana da, joan behar du.

—Bere lana egin beharrean enbarazu besterik ez du egingo. Ikusiko duzu norbait zaurituta edo irteten bada hortik.

Bikotearen arteko eztabaida geroz eta gehiago urrundu zen abiapuntutik eta Josu bera oharkabean desagertu zen bien artetik. Gau osoan lorik hartu ez bazuen, ez zen izan kalapitagatik, ordea. Eta Etxahun inspektorearen ondoan egokitu zenean, kameraren dardaraz edozein ohar zitekeen. Etxahunek berak, baina, arreta gehiago zuen Izarorengan jarrita. Musua gorrituta, begiak konplizitatez kliskatzen zizkion Josuri. Honek ez zuen poliziak nahi zuena ulertzen. Nahiko lan bazuen berearekin, eta fusila bizkarrean jarrita zuen inspektorea begi keinuak egiten egoteak are urduriago jartzen zuen.

Izaro harrituta zebilen. Ez zen testosterona artean hango edozein gizasemek berak nahi zuena egingo zuela zekiela. Hori ondotxo zekien. Harridurak Kirmenengan zuen oinarria. Ez zeraman fusilik. Ez ote zen ehiztaria galdetzen zion bere buruari, bestela ez baitzuen arrazoi logikorik basurde burua bere egongelan egoteko. Misterio hura galdetzera hurbildu zen beragana.

—Konturatu zara inspektorea begiratuak egiten dabilela?

—Ez da lehenengo aldia agure lerdo batek begiratuak egiten dizkidana. Non dago zure fusila?

—Zuzena zara benetan, Izaro.

—Ez naiz horretaz ari. Basurde buru hori. Arrazoi batek egon behar du.

—Animaliak gustuko ditut.

—Animaliak gustuko dituen batek ez ditu trofeo moduan jartzen bere egongelan.

—Arrazoi duzu, utziko lituzke basoan jauzika eta brinkoka zoroen moduan, ezta? Etxahun inspektorea! Badatozela nabari dut.

Aurpegia segituan aldatu zuen poliziak. Belarria zorrotzu eta zakurrak askatu zituzten. Josu ia hankaz gora joan zen orbel eta lur lehor artean. Garbi zegoen ez zuela balio pelikula kostunbrista bat egiteko. Baina han Otsatiko gain-gainean ez zuen nora joan handirik: ehiza amaitu arte han.

Zakurrek ihes egin eta berehala zabaldu zen barea. Haizearen firuli-firula hotsa. Zeinen gezurtia den egoera bera: lasaitasuna dela esan eta jarri ohi gaitu inoiz baino urduriago. Eta bihotzaren erreboluzioak haluzinazioak eragiteko adina direnean errealitatea distortsionatua ikusteraino. Kamerak han gauza bat grabatuko zuen, baina begiek ez zioten halakorik. Lurraren dardara. Luizia. Hautsa harrotuta oxigeno partikulekin nahasian eta ez zen inoiz nahikoa gorputz asaldatuak baretzeko. Han zeuden hamaika ehiztariek izua sentitu zuten olatu zoroaren gisa hurreratzen zitzaizkien basapiztietan tiroka.

Uneaz gozatzen ari zen bakarra Kirmen bera zela zirudien. Baina Izarok bere aurpegia ikusi zuenean, hori ez zen gozamen aurpegia, ez; hura errealitateak fikzio oro gainditzen duenean bati eragiten dion jokoz kanpo sentsazioaren adierazpen gordinena besterik ez zen.

Horregatik, gerra irabazi duten soldaduen moduan jaitsi ziren Otsatitik, azken piztitzarrak maletategian pilotuta eta sartzen ez zirenak arrastaka zeramatzatela. Hura ospatzeko Arteako landan sekulako oturuntza eta festa antolatu zuten, handik egun gutxitara ikusi zutenean basurdeen presentzia ohikoa baino txikiagoa zela, eta gainera ez zebiltzala azken astean bezain oldarkor. Irati agertu zen, Xabier Bilbon geratu zen horretarako gogorik ez zuela iradoki eta gero. Uztokotan zirela onartu zion bazkari

aurretik Izarori garagardo hotzak edaten ari zirela. Denbora egin behar zen parrilak prestatu bitartean. Eta zizka-mizka moduan ekarritako patata tortillak lagungarri onak ziren garagardoarentzat.

Txikienek bi mokadu emanda nahikoa zuten eta kantinatik zetorren musikak hamaka bat iradokitzen zuten siesta eder bat botatzeko zuhaitzen gerizpean. Sekulako eguraldia baitzen, nahiz eta arratsalde iluntzerako ekaitza iragarri.

Ehiztari kuadrillarekin zeuden Izaro eta Josu. Otsatiko gertaera eta gero izuak elkartu zituen denak. Kirmen ere agertu zen bertara Etxahun inspektorearekin. Hau gogo gabe zegoen, baina era batera edo bestera, lortu zuen konbentzitzea idazleak. Gazte kuadrilla zenbaiti ez zitzaien ahaztu moteltzaileekin gertatutakoa, eta justiziak atxilotuei ezarri zien ebazpena ulergaitza eta desproporzionatua zela argudiatzen zuten era txarrean. Poliziak eguna lasai pasa nahi zuten, eta ez zien kasurik egin.

Eta alkohola burura igo ahala, bat baino gehiago Izaro eta Iratirekin ligatzen saiatu ziren, nahiz eta biek interes gutxi azaldu ehiztariengan. Batez ere Iratik. Izarok, noizbehinka, bere probetxurako erabiltzen zuten egoera, eta baita harpa jotzeko ere. Horregatik The Archies taldearen musika bozgorailuetan aditutakoan eta dantzatzeko eskatu zienean honey-honeyren erritmora, inor ez zen gerria mugitzera ausartu, eta barrezka hasi zen neska.

—Gu dantzatzen...

—Ilundutakoan asko jota...

Neskatxo batzuk hurbildu ziren haiengana eta beraiek dantzatu nahi zutela esan zien. Lerdea ahotik zintzilik zutela geratu ziren denak.

Josu, ohi bezala, filmatzen. Pentsatzen zuen dokumental hartako grabaketarik politenak momentu inprobisatuetan lortu zituela. Bere pentsamendua inspektoreak moztu zuen. Belarrira gerturatu eta pasa zizkion irudien inguruko aipamena egin zion. Orduan ulertu zuen mutilak bera hain urduri zegoen bitartean zergatik egiten zituen keinu haiek. Izaro bainatzen ikusi zuen.

—Bakeak egin behar ditugu eta hartu trago bat nirekin. —arrazoia edozein izanda ere, ados bakean uzten bazuen.

Josuk biharamunean begiak zabaldu zituen. Zeukan ajeaz ohartu aurretik ohartu zen komentuko ohean etzanda zegoela eta Izaro alboan.

—Eskerrak Irati etorri zen. Gutxienean adiskide bat izan nuen inguruan.

III La tromperie edo albo kalteen beharrezkotasunaren apologia

13

YUPLALA MUSIKAREN MELODIA denbora makinaren ahalmenaz jendea Erdi Arora eroaten. Goizean goizetik eguzkiak argitu zituen inguruak, eta tenperaturak gora eta gora jarraitzen zuen sargori nazkagarriraino ailegatuz. Itzala eta freskura gutxi batzuen pribilegio bihurtu ziren. Garagardo hotzak zintzurretik behera zihoazen arrapaladan.

Abereen zarata, ofizio galduen kolpeak eta fantasiazko musika elkarren artean lotzen ziren, dantzan. Jendeak gogoak zituen aurreko egunetan gertatutako iskanbila guztiak ahazteko. Moteltzaileak dinamizatu zituztenetik dena joan zen malkarrean behera, kontrolik gabe, haizeak ufaka noraezean darabilen belaontziaren pareko.

Ama Birjina ateratzea ideia ona ote zen batek baino gehiagok pentsatu zuen bere baitarako. Ez ote zen kiskaliko eguzki zapa haren azpian?

Trikitilariak eta txistulariak kalez kale zebiltzan. Kalamar errazioen usaina edonondik usain zitekeen. Izaro komentutik atera zenean hamarrak pasatxo edo izango ziren eta jada herriko behealdean zegoen saltsa nabari zitekeen. Mojak ere desiratzen zeuden kalera irteteko segizio faltsuan parte hartzeko prest baitzeuden. Eta mundu guztiaren ezusterako, santutegiko parrokoak originala ateratzeko erabakia hartu zuen azken momentuan. Zergatik? Auskalo. Baliteke pentsatu izana are larriagoa zela gisako erritua ikono faltsuekin egitea. Apaizaren buruan zer zegoen berak bakarrik zekien.

IRATI: Inoiz ez dugu jakingo hori, Izaro, baina zer axola du? Dena ondo irten zen.

IZARO: Bai, baina ez naiz gehiago idazle horretaz fidatuko.

Izaro frontoian elkartu zen Josurekin, beti egin ohi zuten moduan. Goizeko kafetxo bat eta eguneko plana hitzartzen zuten bien artean. Elkarrekin egongo ziren azken eguna zen hura, grabaketak egiteko azken eguna. Gauean itzulerako hegazkina hartu behar zuen. Garazi ere hurbildu zen Artziniegara azken agurra emateko Izarori eta dena ondo joan zela ziurtatzeko. Lan burokratikoak.

Harrituta zegoen. Ez zuen espero herri osoa mobilizatzeko gai izango zirenik, batez ere Josuren proiektua zein zen kontuan izanda. Intimitate guztiek ihes egin zuten, ordea, herri hartan bizi izandako egoera surrealista guztiak tarteko. “Ama Birjinari eskerrak dena ondo amaitu da, ezta?”. Horrelakoak ohituragatik esateak, agian, zortea tenta dezake, eta baliteke fede gramu batzuk behar izatea gauzak ez daitezen okertu. Perspektibaren arabera beti ere. Batzuentzat gauzak zuzen joateko okertu egin behar baitute.

IZARO: Miran duzu? Damu zara egindakoaz?

IRATI: Zergatik behar nuke horrela? Eskerrik asko aukera honegatik, Izaro. Bultzadatxo hau behar nuen.

IZARO: Badakizu orain kriminal bat izan zaitezkeela, ezta?

IRATI: Zuk bezala nortasun berri bat asmatu behar nuke, ez duzu uste?

Hefestogana joan ziren sutegira. Goizean goizetik jada suaren beroan zegoen, eta, egia esan, su goriaren ondoan hobekiago egon zitekeen kanpoan baino. Koroaren erreplika egiteko hainbeste lan hartu eta gero maldizioka zebilen apaizari egingo zizkionak eta ez zizkionak esaka. Han bere ondoan zuen utzia bisitariak ikus zezaten zer egiteko gai zen. Izarok eskuetan hartu eta sekulako lana zela aitortu zion.

—Nik ordainduko dizut. Hemengo oroigarri moduan. Originala hobea izango zen, baina kopia honekin konforma gaitzke.

Hefestok ez zion halakorik sinesten, baina birritan esan ostean erosiko ziola, irribarre egin eta bere funtzioan jarraitu zuen. Orduan iritsi zen sutegira Mikel bera erdi mozorrotuta Erdi Aroko nekazari jopuaren pare. Harrituta begiratu zien biei, ea zergatik ez ziren mozorrotu galdezka.

—Arteako landan egindako bazkarian, egia —hasi zen Josu gauzak gogoratzen—. Sentitzen dut, Mikel, baina ez naiz gogoratu ere egin horretaz. Halere, ni ez naiz mozorrotzekoa eta ez daukat mozorrorik, beraz zaila ikusten dut hori.

—Etxean badut ihauterietan erabilitako bufoiarena. Balioko dizu. Eta zu, Izaro?

Mojei habitoa uzteko eskatu zien, eta dena prest zuen. Ez zitzaion oso egokia iruditzen goizean goizetik horrekin ateratzea.

—Faborez. Goazen oraintxe bertan.

IRATI: Benetan kurioa izan zen zu mojaz jantzita ikustea.

IZARO: Eta Josu bufoiz?

IRATI: Ez zegoen rol hoberik berarentzat.

IZARO: Inspektorearen galdeketak erantzuten ibiliko da orain seguruenik. Bakeak alferrik egin zituzten. Lastima pixka bat sentitu behar nukeen beragatik?

IRATI: Hori ez doa zurekin.

Goiko plazatik behera jopua, moja eta bufoia. Aldaparen oinean Kirmen bera mugikorrarekin argazkia ateratzen hirurei. Irudia nola erregistratuta geratu zen ikusi eta gero, hura barre lehertzea. Mikelek eskerrak eman zizkion Erdi Aroko azokan laguntzeagatik, eta harrituta zegoela segizioaren kontuarekin. Jende gehiago hurbildu zenaren susmoa zeukan.

—Kontua da nola saltzen den. Pelikula bat grabatuko zela esan genuen eta ikusten dutenean grabatuko duen kamera bakarra hori dela, denek alde egingo dute.

—Besteak gordeta daudela esan dezakegu.

Hamabietarako zegoen hitzordua jarria eta puntu-puntuan atera zuten Igokundeko Ama Birjinaren elizatik irudia. Jendez inguratuta eta parrokoa aurretik bedeinkapena eginez, santutegirainoko segizioari hasiera eman zioten. Josuk gertutik jarraitzen zuen Izaro, zeinak adi-adi begiratzen baitzion eskulturari. Egia zen eguzki argitan santutegiko sotoan ez zuen distira zuela eta errainuak zabaltzearen ilusioa sortzen. Pauso motelean goraino igo ziren gutxienetako batzuk izan ziren, baina antzezpen haren antolatzaileak izanda, zer gutxiago?

Apaizak berriro ere giltzapean gorde zuen koroa.

—Gustura geratuko zineten orain, ezta? Jada grabatu dituzue grabatu beharrekoak!

Haserre samar zirudien.

Irati santutegi alboko aparkalekuan zegoen esperoan Erdi Aroko jantziarekin. Honi ez zitzaion batere inporta segizioa galdu izana.

Kalean muntatuta zegoen azokan gora eta behera ibili ziren gero. Bazkaria postuetako mokadu ugari osatu zuten, batik bat gozoak. Eta belargilearengana ailegatuta, Kirmenek zirrarez bere ezagutza erakutsi nahi izan zien hiru gazteei. Belarren maniako bat zela esan zitekeen. Horien artean oso ohikoa ez zen estimulagarri bat zegoen, “barne piztia esnatzen duten horietakoa”, zioen, eta bakarriketa pedanteegia bilakatzear zegoenean, Garaziren boza aditu zen inguruan.

—Gaur da azken eguna zuen zerbitzari leiala izango naizena, beraz, eskatu nahi duzuen.

—Aprobetxatu orain bufoia. Eraman ezazu denok dakigun toki horretara.

IRATI: Lehen musuak eman ohi diren begira-lekuan ez nuen halako proposamenik inoiz imajinatuko.

IZARO: Eta halere, baiezkoa erantzun.

IRATI: Bizi osorako abentura zirrargarria zin egin zenidan.

IZARO: Zoroangarria, baten batek esango lukeen moduan.

Zoroangarria benetan arratsaldea izan zen. Jan edanak dakarrena, eta azken egunean ere ospatu behar. Josuk amaitutzat eman zuenean grabatu beharreko guztia, bazirudien mundua amaitu zela. Izarorekin harremana ondo bukatzeko ere, aurreko parrandan egindakoa ez errepikatzen saiatu zen, baina alferrik. Garazirekin ere saiatu zenaren susmoak ditu oroitzapen lausoetan. Kontrolik gabe edateak duena.

Eta dena itxi zutenean, kantinara igo ziren artziniegarren gisara, hau da, autoan. Gidatzen Kirmen zegoen, bere ondoan Izaro. Atzean Garazi, Josu eta Irati.

—Aizu Irati, esan duzu anime eta gauza frikiak gustatzen zaizkizula, ezta? Akaso kanta hau ezagutuko duzu.

Kostata, baina lortu zuen gidatu bitartean mugikorretik abestia jartzea. Haizezko instrumentuak, funk musika in crescendo garrasi bat eskatzeraino, eta Iratik eman zion:

—Lupin the third!

Hiru gazteen atzean lotan zegoen zakurra zaunkaka hasi zen bat-batean. Hiruek sekulako jauzia egin zuten Kirmeni gidatzea zailduz. Hau ere edanda, frenatu beharrean zuzen-zuzen santutegiko sotoaren aurka jo zuten.

Kantinan festan zeudenak harri eta zur geratu ziren. Baten bati bururatu zitzaion 112ra deitzea. Azaldu zen halako batean helikopteroa eta autoaren eskuinaldeko bi neskak eraman zituzten okerren zeudela iritzita.

IZARO: Eta orain hemen gaude funtzioa amaituta.

IRATI: Lan ona egin nuen segurtasun neurri guztiak baliogabetzen, ezta?

IZARO: Bai, eta oraindik Hefesori bere zatia ordaindu behar diot. Bestela, kontrata nezake hurrengo lapurretarako. Seguruenik ohartuko ziren han geratutakoa kopia dela eta hau dela benetakoa.

IRATI: Esan zenidan Kexaakoak baino azkarragoa zela, ezta?

IZARO: Baina ez Printzesa hau bezain azkarra.

Banderizo eta bandoleroena izandako lur hark akaso ez zuen inoiz espero izan Izaro bezalako baten etorrera. Edo agian bai, batez ere bigarren goen bandokoa baitzen.